

EUSKADIKO HAUR
ETA NERABEEN
ERREALITATEA
ZIFRATAN

2014ko urria

Egilea:



Norentzat:



*Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren
Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza*

Aurkibidea

Sarrera	5
Hurbilketa demografikoa	7
Familia	9
Osasuna	19
Hezkuntza	27
Ongizate materiala	37
Aisialdia	42
Ingurunea eta integrazioa	47

Grafikoen aurkibidea

1. GRAFIKOA: ADINGABEKO SEME-ALABAK DITUZTEN ETA SEME-ALABEKIN EGUNERO EDO IA EGUNERO HAINBAT JARDUERA EGITEN DITUZTELA ADIERAZTEN DUTEN PERTSONEN EHUNEKOA. EAE 2001-2012	12
2. GRAFIKOA: LAN EGITEN DUTEN GURASOEN 0 ETA 2 URTE ARTEKO SEME-ALABA KOPURUA, LANALDIAN ZEHAR ESKOLA ORDUTEGIAN DUTEN ZAINTZAREN ARABERA. EAE 2012	13
3. GRAFIKOA: LAN EGITEN DUTEN GURASOEN 0 ETA 2 URTE ARTEKO SEME-ALABA KOPURUA, LANALDIAN ZEHAR ESKOLA ORDUTEGITIK KANPO DUTEN ZAINTZAREN ARABERA. EAE	13
4. GRAFIKOA: 0 ETA 5 URTE ARTEKO BIZTANLERIA HAURTZAINDEGIETAN EDO IKASTETXEETAN JASOTZEN DUTEN ARRETAREN ARABERA 2010	14
5. GRAFIKOA: FAMILIAKO BIZITZA ETA LANEKO BIZITZA BATERATZEKO LANGUNTZEN ESPEDIENTEAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA (espedienteak guztira: eszedentziak eta murrizketak). EAE 2009-2013	15
6. GRAFIKOA: FORU ALDUNDIETAKO HAURREN GIZARTE ZERBITZUEK ARRETA EMANDAKO ADINGABEKO BERRIEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE 1995-2012	16
7. GRAFIKOA: NAZIO MAILAKO ETA NAZIOARTEKO ADOPZIO ESKAEREN BILAKAERA. EAE 2009-2012	17
8. GRAFIKOA: HARRERAN HARTUTAKO LAGUNDU GABEKO ADINGABEKO ATZERRITAR "BERRIEN" KOPURUAREN ETA ABENDUAREN 31N FORU ALDUNDIETAN HAURREN GIZARTE ZERBITZUEK HARRERAN HARTUTAKO LAGUNDU GABEKO ADINGABEKO ATZERRITARREN KOPURUAREN BILAKAERA EAE 2005-2012	18
9. GRAFIKOA: JANARI LASTERRAREN, BARAZKIEN ETA ARRAINAREN KONTSUMOA. 2013	21
10. GRAFIKOA: ALKOHOLAREN ETA TABAKOAREN OHIKO KONTSUMOAREN ETA KANABISAREN EGUNGO KONTSUMOAREN BILAKAERA.EAE 2008-2010	24
11. GRAFIKOA: 17 URTEREKIN ESKOLATZEAREN TASA GARBIA. EAE-KO 1999/2000-2009/2010 ikasturteak ETA ESPAINIAKO ETA EUROPAKO TASEN BILAKAERA.	28
12. GRAFIKOA: ESKOLA UZTE GOIZTIARRAREN TASAREN BILAKERA. EAE GUZTIRA ETA SEXUAREN ARABERA 2000-2011 ETA ESPAINIA ETA EUROPA 2011.	29
13. GRAFIKOA: 16 ETA 19 URTE ARTEKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA. EAE SEXUAREN ARABERA ETA ESPAINIA. 2005-2013	30
14. GRAFIKOA. ZIENTZIETAKO, MATEMATIKAKO ETA IRAKURMENEKO PISA PROBAN ERRENDIMENDU MAILA BAXUAN DAUDEN 15 URTEKO IKASLEEN EHUNEKOA. EAE 2006 ETA 2012 ETA ELGA 2012	32
15. GRAFIKOA: IKASTETXE PUBLIKOETAN IKASLEKO HEZKUNTZAN EGINDAKO BATEZ BESTEKO GASTUAREN BILAKERA (euroak ikasleko). EAE 1995-2009 ETA EUROPA ETA ESPAINIA 2010 eta 2011	36
16. GRAFIKOA: MANTENU-TXIROTASUN ARRISKUAN, ONGIZATE FALTAN, BENETAKO MANTENU-TXIROTASUN EGOERAN ETA BENETAKO ONGIZATE ABSENTZIAKO TXIROTASUNEAN DAUDEN ADINGABEKOEN (15 URTE BAINO GUTXIAGOKOAK) PROPORZIOA . EAE 2004-2012	39
17. GRAFIKOA: TELEBISTA IKUSTEN EDO BIDEOJOKOETAN, ORDENAGAILUAN ETA INTERNETEN EGUNERO ORDU ETA ERDI EDO GEHIAGO PASATZEN DUTEN 1 ETA 14 URTE ARTEKO BIZTANLERIA. 2012KO EAE.	44

Sarrera

Dagoeneko 25 urte bete dira 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Orokorrek Haurren Eskubideen Konbentzioa onartu zuenetik. 1990eko irailaren 2an jarri zen indarrean. Haurren eta nerabeen eskubideen aitortpenerako lehen nazioarteko tresna izan zen hori, eta haurrei ahalmena ematen die, gizartearen eragile aktibo diren heinean. Estatu mailan aplikagarri den gainerako nazioarteko hitzarmen eta araudiekin batera, kolektiboaren eskubideak babesteko testuinguru unibertsala da, eta kolektiboa bistaratzeaz gain, haren babes eta garapena bermatzen du.

Nahitaez bete beharrekoa da sinatutako herrialdeetarako eta Haurren Eskubideen Batzordeari azalpenak eman beharko dizkie. Batzorde horrek 2010eko azken txostenean Espainiako Gobernuari estatu mailan hartu beharreko erronka nagusiak identifikatu zizkion; horien artean nabarmentzen dira, besteak beste, txirotasun-egoerak, eskola-porrotaren nagusitasuna edo haurren errealitatea eta nerabezaro migratzailea.

Horrez gain, komunitate autonomoek, legegintzako eskumena izanik, adingabekoen babes eta sustapenaren arloan autonomia mailako legedia zabal garatu dute. Horrekin lotuta, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, **Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 2005eko otsailaren 18ko 3/2005 Legea**, 3/2009 legeak aldatutakoa, lehen aldiz arloan erreferentzia-marko globala ezartzen duena.

Horrekin lotuta, plangintza-tresnak ere aipatu behar dira, hala nola **EAEko Familiei Laguntzeko III Erakunde arteko Plana**. Horrez gain, hainbat erakunde, haien artean, **Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoa**, adingabekoen alde erakunde horretan egiten ari zen lana indartzen duena, eta **Familiaren eta Haur eta Nerabeen Behatokiak**, haien lana Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Ikuspegi@k ([Gizarte Gaietako Behatokiak](#)) sailaren testuinguruan garatzen dutenak eta hainbat gairen azterketa, ikerketa, dokumentazioa, aholkularitza eta ebaluazioa egiteko funtzioak dituztenak.

Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzak hainbat ikerketa garatu izan ditu haur eta nerabeen arloan, kolektiboaren errealitateari buruzko ezagutza zabaltzeko eta ikuspegi ugariatik hainbat hurbilketa-saiakera egiteko. Besteak beste, honakoak aipa daitezke: *EAEko haur eta nerabeen behar eta eskaerretarako hurbilketa*¹, *EAEko haur eta nerabeen errealitateari jarraipena egiteko adierazleen sistema*² edo *Haurren txirotasuna Euskadin*³.

Hain zuzen ere, *EAEko haur eta gazteen egoerari buruzko azterlana, haien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik*⁴, 2010ean, Zuzendaritza horrek EAEn proiektu aitzindaria jarri zuen martxan *EAEko haur eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema*⁵ egiteko. Azken hori 2011ko otsailean argitaratu zuten eta 2012ko uztailean eguneratu, eta berriz ere 2014ko martxoan eguneratu zuten. Adierazle sistema horri esker, aldizka eguneratuta, Zuzendaritzak egoeraren jarraipen egokia egin dezake, hainbat dimentsio (osasuna, hezkuntza, baliabideak...) kontuan hartzen dituen ikuspegiarekin; horrez gain, beste

¹ Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Gaietako Behatokia. Haur eta Nerabeen Behatokia. *EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*. 2010eko uztaila.

² Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Gaietako Behatokia. Haur eta Nerabeen Behatokia. *EAEko haur eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema*. 2011ko otsaila.

³ Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Gaietako Behatokia. Haur eta Nerabeen Behatokia. *Haurren txirotasuna Euskadin*. 2013ko maiatza.

⁴ Haur eta nerabeen defentsoria. *Haur eta nerabeen egoerari buruzko azterlana, haien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik*. 2009.

⁵ Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Gaietako Behatokia. Haur eta Nerabeen Behatokia. *EAEko haur eta nerabeen errealitatearen jarraipena egiteko adierazleen sistema*. 2011ko otsaila.

gizarte-eragile batzuen esku jartzen du EAEko haur eta nerabeen egoerari buruzko informazio ahalik eta garrantzitsu eta eguneratuena.

Dokumentu honek datu estatistikoa oinarri hartuta EAEko haur eta nerabeen errealitatearen analisi orokorra jasotzen du. Eskuragarri zeuden datu estatistikoen artean, deskribatzeko eta errealitatea aurreratzeko garrantzitsuenak izan daitezkeenak hartu dira, eta adierazleen sistema horretan daude⁶. Datu berrienak aurreko urteetako beste batzuekin eta beste lurralde-eremu batzuetakoekin osatu dira, azterketari behar adinako testuingurua emateko. Azken batean, txostenean azaldutako eta aipatutako datuek informazio erabilgarri multzoa osatzen dute, gaur egun garrantzitsutzat har daitezkeen alderdiei buruz gogoeta sustatzeko.

Ikuspegi orokorra hartzeak berekin dakar, txosten honetan, alde batetik, analisia urrakortasun bereziko egoeran dagoen populazioan oinarritzen dela, eta beste alde batetik, ez dela eremu jakin bat lantzen (osasuna, aisialdia...), eskubide eta bizi-kalitatearen ikuspegitik begirada orokorra eskaini nahi du, eremu ugariaren inguruan: hurbilketa demografikoa, familia, osasuna, hezkuntza, ongizate materiala, aisialdia eta ingurunea eta integrazioa.

⁶ Ohar metodologikoa: Txosten honek bigarren mailako iturri ugariak biltzen ditu. Orri-oinetan aipatuta utzi ditugu, eta dokumentuaren amaieran bildu ditugu, irakurketa ez oztopatzeko. Kolektiboaren errealitatearen jarraipena egiteko eskuragarri dauden datuek batzuetan ez dute desiragarria litzatekeen eguneraketarik izaten eta askotan iturriek adinen arabera datuen bereizketa nahikorik ez dute izaten.


Hurbilketa demografikoa

355.258 haur eta nerabe bizi dira EAEn.

EAEn, 2013ko datuen arabera, guztira 18 urtez azpiko 355.258 adingabeko dago (% 48,56 neska dira), eta hori Euskadiko biztanleria guztiaren % 16,21 da. Ehuneko hori 2011ko baino puntu eta erdi altuagoa da (% 15,78), baina kolektiboaren garrantzia gaur egun oraindik ere duela bi hamarkada komunitatean genuena baino baxuagoa da (% 17,29 1996an) eta estatukoa baino baxuagoa ere bada; izan ere, Espainian 18 urtez azpiko biztanleak guztizkoaren % 17,75 dira⁷.

Modu espezifikoan, 15 urtez azpiko adingabekoen ehunekoari begiratuz gero, biztanleria aktiboaren guztizkoarekin alderatuta (15 eta 64 urte arteko biztanleak), antzeko joera ikus daiteke, EAEko gazteen mendekotasun-indizea (% 20,97) estatukoa baino (% 22,31) eta Europakoa baino (% 23,40 2011n) txikiagoa da⁸

3 urte edo gutxiagoko biztanleria 18 urtez azpikoaren % 23,78 edo gutxiagokoa da (84.480 haur). Ehuneko hori 2011n erregistratutakoa baino baxuagoa da (% 24,64), baita 2007koa baino ere (% 24,92), atzerriko herritarren gorakadak adin-talde horren igoera baldintzatu zuenean⁹.



Adingabeko biztanleen artean, atzerriko biztanleen proportzioa handitu egin da 2011 eta 2013 artean (2011n % 7,40 izatetik 2013an % 7,71 izatera); dena den, igoera ez da aldi honetan aurreko urteetan bezain markatua izan (2007an atzerriko adingabeko biztanleak adingabeko kolektiboaren % 5,51 ziren). Distantzia pixkanaka murrizten joan den arren, EAEn tasa ia ehuneko lau puntu baxuago dago estatu mailan erregistratutakoa baino (% 11,60)¹⁰.

Bestalde, 2012an erregistratutako jaiotze-tasak (mila biztanleko 9,42 jaiotza) atzerakada arina izan du 2010etik (% 9,9) eta Espainiako batez bestekoaren azpitik jarraitzen du (% 9,69), baita 2011ko Europako batez besteko tasaren azpitik ere (% 10,4). Bestalde, nabarmenezkoa da azken urteetan atzerriko emakumeek izandako ume kopuruak gora egin duela. 2012an EAEn erregistratutako jaiotzen % 14,72 ama atzerriarrenak izan ziren (2000. urtean % 2,80).¹¹

Gaur egun EAEn 1.000 biztanleko 9,42 jaiotza izaten dira, estatuko eta Europako batez bestekoaren azpitik dago ratioa.

⁷ EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika 2013.

⁸ EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika 2013.


⁹ EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika 2013.

¹⁰ EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika 2013.

¹¹ EIN. Biztanleriaren Mugimendu Naturalak. 2012.

Era berean, adin ugalkorrean (15 eta 49 urte) dagoen emakume bakoitzeko seme-alaba kopurua EAEn 2012an 1,35ekoa zen, 2010eko zenbatekoa baino (1,38 orduan) pixka bat baxuagoa. Hala ere, 1994koa baino nabarmen altuagoa da (bat baino baxuagoa), data horretatik aurrera ratioa handitzen joan da atzerriko biztanleriaren igoerarekin.

Adingabeko biztanleak urtez-urte sexuaren arabera



Familia

Familia da haur eta nerabeen erreferente nagusia. Eskubideen defentsan rol nagusia du eta gizarte-kohesioko eta babeseko nukleoa da. Azken urteetan aldaketak izan dituen arren, oraindik ere, forma ugarietan, zaintza eta babeserako sinbolo da, are gehiago krisiak markatutako testuinguruetan.

2012an euskal herritarrei egindako kontsulta batek adierazten duenez, % 86k uste du familia oso garrantzitsua dela bizitzan eta % 10 gehiagok uste du nahiko garrantzitsua dela. Kopuru horiek duela hamaika urte erregistratutako enose antzekoak dira (2001ean % 99k uste zuen familia nahiko edo oso garrantzitsua zela bizitzan)¹².

Eskuragarri dauden azken daten arabera, 2011n, EAEn guztira 15 urte edo gutxiagoko biztanleak bizi diren 243.605 etxe daude, hau da, Euskadiko etxeen % 27,40. Ehuneko hori estatu mailako etxeek duten garrantzia baino txikiagoa da (% 32,02). Etxe horietako 91.170en kasuan, % 10,26an, 5 urte baino gutxiagokoak bizi dira¹³.

**15 urtez azpiko
biztanleak dauden
243.605 etxe daude
Euskadin.**

**Ez dago familien
eredu bakarra.
16 urteko
adingabekoen
% 6 guraso
bakarreko
etxeetan bizi
dira.**

Gaur egun, familiaz hitz egitean, ez da familia mota bakarrean pentsatu behar, Euskadiko famili motak gero eta ugariagoak baitira, dagoeneko ez dago familia-eredu bakarra.

1996 eta 2006 artean, Euskadiko familien batez besteko neurria 3,05 lagun izatetik 2,64 lagun izatera pasatu da, hau da, % 13,4ko jaitsiera izan da. Familia nuklearrak, aita batez, ama batez eta ondorengoak osatutakoak, duela hamarkada batzuk hegemonikoak izan ziren arren, denborarekin garrantzia hartu duten beste familia mota batzuei lekua egin die gaur egun.

Familia-ereduak

Guraso bakarrak eta haien seme-alabek osatutako guraso bakarreko familiak (askotan bereizte edo dibortzio baten ondorioz sortutakoak), berriz eratutako familiak (egungo bikotearen kide batek edo biek aurreko loturetatik seme-alabaren bat edo hainbat dituztenak), sexu bereko pertsonen osatutako familiak eta abar izan daitezke.

2012an EAEn erregistratutako ezkontza-hausturen erdia inguru (% 50,7) 18 urtez azpiko ondorengoak dituzten bikoteenak ziren, hau da, guztira 2.075 kasutan joan ziren seme-alabak gurasoetako bakarrarekin bizitzera¹⁴.

Ikuspegi zabalagotik hartuta, 2008ko datuen arabera, guraso bakarreko familia guztien artetik % 40k mendeko seme-alabak dituzte¹⁵, hau da, Euskadiko etxeen % 3,3k. Hain zuzen ere, 16 urtez azpiko % 6 guraso bakarreko etxeetan bizi da¹⁶.

¹² Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Familia EAEn*. Uztaila 2012

¹³ EIN. Biztanleria eta Etxebizitzaren errolda 2011.

¹⁴ EIN. Ezkontzen baliogabetze, bereizte eta dibortzioen estatistika 2012.

¹⁵ Mendeko seme-alabatzen hartzen diren adingabekoak eta familiako etxebizitzan bizitzen jarraitzen duten 25 urtez azpiko biztanleak.

¹⁶ Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxeetako inkesta 2008

Familia-harremanak

Haur eta nerabeek oso ongi puntuazioa ematen diete familia-harremani.

Familia barruko harreman eta komunikazioen berri emango duten datu eguneratuagorik ezean, 2011n Espainiako Gobernuak Gizarte Politika eta Osasun Ministerioak 2006ko datuekin argitaratutako txostena *-Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa* izenekoan oraindik ere erreferentzia garrantzitsua da arlo honetan. Txostenaren arabera, 11 eta 17 urte arteko EAEko haur eta nerabe askok familia-harremanekin asebetetze handia dute, 10etik 8,43 puntu lortzen dute batez beste¹⁷.

Oro har, helduen eta adingabekoen arteko komunikazioa familia-eremuaren barruan osasuntsu dagoela dirudi, baina nabarmentzekoa da adin horretako nerabeek oztupo gutxiago dutela amarekin komunikatzeko, bereziki neskek. % 14,7k soilik adierazten du zailtasunen bat duela amarekin hitz egiteko kezkatzen duten gauzez; aldiz, aitarekin gai horiez hitz egiteko zailtasuna, berriz, % 32,8k adierazi du, eta ehunekoak % 40,9ra igotzen da nesken artean¹⁸.

Familiako kideen arteko komunikazioa ona da kasu gehienetan, baina nerabeentzat errazagoa izan ohi da amarekin hitz egitea kezkatzen dituzten gaien inguruan.

Ziurrenik malgutasunak, familia-instituzioan garatu diren eskema ez hain hierarkiko eta autoritarioek eta familiako kideen arteko berdintasun eta askatasun mailek ahalbidetu dute haurrek eta nerabeek familiako erabakien parte sentitzeaz duten pertzepzioa. Hala, 11 eta 14 urte arteko adingabekoen hiru laurdenek (% 76,6) uste dute etxean hartzen diren erabakietan parte hartzeko ahalmena dutela¹⁹.

Gatazkak

Dena den, familia-harremanen errealitateari buruzko ikuspegi osoa izateko, familia barruko gatazka jakin batzuk badaudela dioten datuak ez ditugu ahaztu behar. 2013an guztira 18 urtez azpiko biztanleen artean sexu-askatasunaren aurkako delitu eta tratu txarregatik 1.230 biktimizazio erregistratu dira, eta kasuen % 48,53an egilea familia-inguruneak zen (familia-ingurunearen barruko biktimizazioen garrantzia aurreko urtean baino handiagoa da guztizkoarekiko; % 44 2012an eta % 32 2008an).

Bestalde, azken urteotan, arina bada ere, familia barruko indarkeriari lotutako adingabekoen delituen igoera izan da, hau da, familiako kideren bati eraso egiten dioten adingabekoen edo bikoteari eraso egiten dioten adingabeko nerabeen kasuak. 2012an 130 kasu inguru²⁰ erregistratu ziren. Gazte Justiziaren III Planean jasotako informazioaren arabera, familia-indarkeriaren neurri tinkoak ugaritu egin dira; 2008 eta 2012 artean bikoiztu egin dira.

Desagertzeen kasu askok ere etxe barruko gatazkekin lotura izaten dute. Datuen arabera urtebetean desagertutako pertsonak neurri handian urte horretan bertan agertzen diren arren, fenomeno horrek goranzko joera duela ikus daiteke. 2013ko datuen arabera, 18 urtez

¹⁷ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁸ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁹ Unicef. Bizitza-kalitatea eta haurren ongizate subjektiboa Espainian, zerk eragiten dio DBHko 1. mailako Espainiako haurren ongizateari? 2012

²⁰ Arartekoa. *Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena. 2012. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena. 2013 eta III Gazte Justizia Planaren Ebaluazioa.*

azpiko 2.211 lagun desagertu direla erregistratu da, 1.300 inguru 2010ean, 1.500 2011n, eta ia 2.000 2012an. Desagertutako hamar adingabekotik sei inguru mutilak dira.

Familian egindako denbora

Seme-alabekin hitz egin edo ikasketekin laguntzea badirudi jarduera ohikoagoak direla aurreko urteetan baino, aldiz, otordua familiarean egiten dutenen ehunekoak behera egin du.

Garrantzitsua da ohiko jardueretan (hizketan, jolasean eta abar) familian pasatzen den denborari dagozkion datuetan arreta jartzea. 2012ko datuen arabera, Euskadiko herritarren % 62ren ustez, egungo euskal familia duela hogeitau urtekoarekin alderatuz gero, oro har, familiarekin partekatze denbora gutxiago dagoela ikus dezakegu²¹.

EAEn adingabeko seme-alabak dituzten lau lagunetik hiruk egunero edo ia egunero seme-alabekin hizketan eta iritziak partekatzen tarte bat igarotzen zuela adierazi zuten 2012an (% 74); 2001ean jasotako zifra (% 55)²² nabarmen handitu dela esan nahi du horrek. Sexuaren araberrako aldeetan ere murrizketa nabarmena islatzen dute datuek; izan ere, orduan amek aitek baino % 13 gehiago egiten zuten, eta aldiz, gaur egun aldea ez da % 1 eskasekoa besterik. Dena den, nabarmendu beharrekoa da lau gurasotatik batek ez duela horrelako ohiturarik²³.

Gurasoek adingabeko seme-alabei ikasketetan edo etxeko lanetan laguntzen pasatzen duten denborari dagokionez, aurrerapena ikus daiteke, % 62k astean behin edo bitan egiten baitu (% 51k egunero edo ia egunero); aldiz, 2001ean, ehuneko % 41ekoa zen (% 35ek egunero edo ia egunero). Gurasoen arteko aldea ere desegin dela dirudi jarduera horretan²⁴.

Egunero edo ia egunero seme-alabekin jolasen batean (edozein jolasetan) aritzen dela dioen pertsona kopuruak ez du % 45a gaintzen (2001ean jasotako zifraren antzekoa, % 43). Horri astean behin edo bitan (% 9) eta jaiegunetan soilik jolasten direnak (% 7) gehitzen bazaizkio, hamar lagunetik lauk oso denbora gutxi ematen duela seme-alabekin jolasean ondorioztatuko dugu²⁵.

Paseoan parkera ateratzea da 2001etik ia aurrerapenik izan ez duen ohiko jardueretako bat; gurasoen % 39k egunero edo ia egunero egiten zuen 2012an (% 36 2001ean). Oraingoan, esan daiteke gehienbat amak direla jarduera hori egiten dutenak maiztasun horrekin seme-alabekin; izan ere, % 48 dira hori egiten duten emakumezkoak, eta % 31, berriz, gizonezkoak²⁶.

Duela hamar urte baino denbora gutxiago eskaintzen zaio familian bazkaltzeari. 2001ean gurasoen % 54k seme-alabekin bazkaltzen zuen egunero edo ia egunero eta gaur egun, berriz, % 33k soilik egiten du hori²⁷.

²¹ Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.

²² Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.

²³ Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.


²⁴ Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.

²⁵ Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.

²⁶ Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.

²⁷ Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.

1. GRAFIKOA: ADIN TXIKIKO SEME-ALABAK DITUZTEN ETA SEME-ALABEKIN EGUNERO EDO IA EGUNERO HAINBAT JARDUERA EGITEN DITUZTELA ADIERAZTEN DUTEN PERTSONEN EHUNEKOA. EAE 2001-2012



Iturria: bertan egina, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren Idazkaritza Nagusiaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen *Familia EAEn* txosteneko datuak oinarri hartuta.

Kontziliazioa

Familiako bizitza, laneko bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko zailtasunak direla eta, guraso askok seme-alaben zaintza hirugarren pertsona batzuen esku utzi behar izaten dute, eta horrekin erronka berriak ateratzen dira hezkuntza-urratsei dagokienez.

Ugariak dira familia-harremanetan aldaketak ekarri dituzten eta gurasoek seme-alabekin partekatzen zituzten jarduera batzuk egiteko ematen duten denbora murriztea eragin duten faktore soziokulturalak (biztanleen aisialdi-ohituren aldaketa, laneko bizitza, familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko zailtasunak eta abar).

Era berean, horrek ekarri du tradizioan gurasoek egiten zituzten zaintza-lanak beste pertsona batzuen esku uztea, eta horren ondorioz, gaur egun haurren hazkuntza babesten duten pertsona horiek (aitona-amonak, kontratatutako pertsona, haurtzaindegiko langileak eta abar) dira hezkuntza-ereduetako erreferente berriak.

Horrek konfiantzako eta elkarrizketako ereduakin orekan dauden arauak eta mugak lotzeko lan zailaren inguruko erronkaz betetako agertokia erakusten digu²⁸. 2012ko datuen arabera, euskal herritarren % 55ek uste du gaur egun zailagoa dela neska-mutilak heztea iraganean baino (30-40 urte baino) eta % 77k uste du gaur egungo euskal familia duela 20 urtekoarekin alderatuz gero, oro har, gurasoekiko errespetua txikiagoa dela²⁹.

Bizimodu berriek eta familia-kontziliazioak eraginda, azken urteotan haurrak eskolara modu goiztiarragoan joaten dira. 2012/2013 ikasturtean, azken urteetan erregistratutakoaren antzeko joera ikusita, 0 eta 2 urte arteko biztanleriaren % 51 eskolatuta zegoen, eta ehuneko hori nabarmen handiagoa da estatukoaren aldean, % 31 baita han³⁰.

²⁸ Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Gaietako Behatokia. Haur eta Nerabeen Behatokia. *EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*. 2010eko uztaila.

²⁹ Eusko Jaurlaritza. Lehendakariaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012ko uztaila.


³⁰ Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. Unibertsitatekoak ez diren Irakaskuntzen Estatistika. 2012-2013ko datuen aurrerapena

Lanean ari direnen 3 urte baino gutxiagoko haurren % 55,7 familiartekoez edo ordainketarik jasotzen ez duten beste pertsona batzuek zaintzen dituzte, eta % 7,4, eskola-ordutegia amaitutakoan lanaldia iraun bitartean kontratatutako pertsonak.


2012ko datuen arabera, lanean ari diren gurasoen 0 eta 2 urte arteko seme-alaben eguneroko zaintza, lanaldian eta eskola-ordutegian ikastetxeen (% 44,2) eta haurtzaindegien (% 23,1) esku izaten da; seme-alaben % 13,4 familiartekoez edo ordaindu gabeko beste pertsona batzuek zaintzen dituzte (aitona-amonak, lagunak...) eta % 2,2, ordaindutako langileek. Seme-alaben % 17,2 soilik zaintzen ditu aitak, amak edo biak (% 10,4 amak bakarrik, % 1,8 aitak bakarrik eta % 5 biak).

Eskola-ordutegitik kanpoko zaintza denean, 0 eta 2 urte arteko adingabekoen % 35,3 gurasoek zaintzen dute; % 55,7ra igotzen da familiartekoez edo ordainketarik jasotzen ez duten pertsonak zaintzeko kopurua, eta % 7,4koa da ordaindutako langileek zaintzeko kopurua³¹.

2. GRAFIKOA: LAN EGITEN DUTEN GURASOEN 0 ETA 2 URTE ARTEKO SEME-ALABA KOPURUA, LANALDIAN ZEHAR ESKOLA ORDUTEGIAN DUTEN ZAINTZAREN ARABERA. EAE 2012



3. GRAFIKOA: LAN EGITEN DUTEN GURASOEN 0 ETA 2 URTE ARTEKO SEME-ALABA KOPURUA, LANALDIAN ZEHAR ESKOLA ORDUTEGITIK KANPO DUTEN ZAINTZAREN ARABERA. EAE 2012



Iturria: bertan egina, Eustaten laneko bizitza, familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeari buruzko inkestako datuak oinarri hartuta.

2008ko datuen arabera, 0 eta 2 urte arteko 54.000 haur inguru zeuden eskolatzeko adinean 34.000 plaza publiko inguru eskaini zirenean, beraz, adin talde horretarako estaldura % 63koa izan zen. 0 urteko haurrentzat eskaintako plazak 4.000 baino gehixeago izan ziren, baina aipatu behar da adin horretan eskolatu ahal izango liratekeen adingabeen kopurua 13.000 baino gehiagokoa zela.³²


Adin goiztiarretan ikastetxe eta haurtzaindegietan arreta jasotzearen alde egiten duten familietako gehienek horretarako arazorik izaten ez duten arren, bada arretarik jaso ezin duten adingabekoen ehuneko bat, sistemak eskaria xurgatzeko eta horretara egokitze gaitasunik ez duelako.

³¹ Eustat. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2012

³² Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Erakunde arteko II Planaren Tarteko Ebaluazioa*.

2010ean, 0 eta 5 urte arteko haurren % 2,8 (4.000 adingabeko inguru) ez zituzten hartu haurtzaindegi eta ikastetxeetan, eremuan plazak falta zirelako, egokitutako plazak falta zirelako, baliabide horiek kostu altua edo ordutegia zirela eta (% 2,4 2006an). Hain zuzen ere, ia kasuen erdian (% 45,80) arrazoi nagusia eremuan plaza nahikorik ez izatearekin lotuta dago³³. Gainera, arrazoi mota horrek (plazarik ez izatea, kostua eta abar) neurri handiagoan eragiten die gabezia-egoerak dituzten familiei, hau da, oinarrizko beharren estaldurarik ez duten familiei (% 2 gabeziarik ez duten familiak direnean, eta % 6,6 oinarrizko gabeziak dituzten familiak direnean).

4. GRAFIKOA: 0 ETA 5 URTE ARTEKO BIZTANLERIA HAURTZAINDEGIETAN EDO IKASTETXEETAN JASOTZEN DUTEN ARRETAREN ARABERA 2010



Kontziliazioa, zalantzarik gabe, laneko merkatuaren zati diren eta aldi berean etxean beste batzuen zaintzaren kargu egin behar duten pertsonentzat erronka garrantzitsuenetakoa da. Adingabekoak ardurapean dituztenentzat kezka nagusietako bat da, batez ere seme-alabekin kalitateko denbora pasatu ahal izateko. Administrazio publikotik familiei babes emateko kontuan hartu diren estrategia ugarien artean aipatzekoak dira laneko bitzita eta familiakoa bateratzeko laguntza ekonomikoekin lotutakoak. 2009an 18 milioi euro baino gehiago bideratu ziren EAEn laguntza mota horietarako, eta familia, haur, gazteria eta emakumeen sailera bideratutako gizarte-zerbitzuen gastu publiko korrontearen % 9,4 izan zen (2006an baino ehuneko txikiagoa, % 15,2koa izan zen orduan³⁴). 2013rako behin-behineko datuen aurrerapen batek ohartarazten du kontzeptu horretan egindako gastua izaera absolutuetan murriztu egin dela 16 milioi eta erdi eurora arte³⁵.

Horrez gain, 2009an familiari, haurtzaroari, gazteriari eta emakumeari zuzendutako gizarte-zerbitzuetako gastu publiko arrunt guztiaren beste % 2,10 haurtzaindegietako laguntza ekonomikoetara bideratu zen, hau da, lau milioi euro baino pixka bat gehiago. 2004an egindako gastuaren garrantziari dagokionez igoera bat antzeman den arren (gastu hori guztizkoaren % 0,7 zen 2004an), ehunekoa jaitsi egin da 2007rekiko (guztizkoaren % 3,1)³⁶.

Genero-rolak

Dena den, duela hamarkada batzuk emakumea esfera publikora pasatzeak ekarri zuen aldaketa soziala kontuan izanda (gogoratu behar da 2009an Euskadiko etxean % 47tan lan egiten zuten emakumeak zeudela, eta 1996an ehuneko hori % 29koa zen), familiako mendeko pertsonen zaintzarako bateratze-beharrak gaur egun ere oraindik ez die berdin eragiten gizon eta emakumeei³⁷.

³³ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. 2010*

³⁴ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Gizarte Ongizatearen Euskadiko Kontseilua. Gizarte Zerbitzuen Euskadiko Kontseiluaren II Txostena. Gizarte Zerbitzuen egoera EAEn. 2012ko otsaila*

³⁵ Espresuki egindako eskaera. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

³⁶ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Gizarte Ongizatearen Euskadiko Kontseilua. Gizarte Zerbitzuen Euskadiko Kontseiluaren II Txostena. Gizarte Zerbitzuen egoera EAEn. 2012ko otsaila*


³⁷ Iturria: Txiritasunaren eta Desberdintasun Sozialaren inkesta (EPDS). Laneko Merkatuko Erroldaren (LME) aurrerapena 2009

Etxean adingabeak zaintzearen erantzukizun-banaketa ez da ekitatiboa oraindik ere, emakumeek denbora gehiago ematen dute.

Estatistika-datuak erakusten dute familia-eremuan etxeko lanen banaketa ez dela ekitatiboa oraindik ere, emakumeek hartzen dute gehien bat etxeko lanen ardura eta denbora gehiago eskaintzen diote adingabeak zaintzeari. Hain zuzen ere, Eustatek 2012an argitaratutako *Laneko bizitza, familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeari buruzko inkestaren arabera*, gizonetako egunean 3 ordu inguru ematen dituzte adingabeko seme-alabak zaintzen, aldiz, emakumeek lan hori batez beste 4 ordu baino gehiagoz egiten dute³⁸.

Azken urteetan familiako bizitza eta laneko bizitza bateratzeko gizonetako egindako laguntza-eskaeren igoera nabari den arren (2009an espedienteen % 2,92 izatetik 2013an % 4,33 izatera pasatu dira), lana uztearen edo lanaldia murriztearen aukera gehienbat emakumeek hartzen duten aukera da. 2013an seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketak eta eszedentziak eskatzeko laguntza ekonomikoaren eskaeren % 93,07 emakumeenak izan ziren³⁹.

5. GRAFIKOA: FAMILIAKO BIZITZA ETA LANEKO BIZITZA BATERATZEKO LANGUNTZEN ESPEDIENTEAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA (espedienteak guztira: eszedentziak eta murrizketak). EAE 2009-2013



Iturria: bertan egina, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren datuetatik abiatuta. Espresuki eskatuta

Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoaren Kabinetearen 2012ko azken kontsultaren emaitzen arabera, 18 urtetik beherako seme-alabak dituen euskal biztanleriaren % 41ek bi gurasoek seme-alabekin denbora libre bera ematen dutela pentsatzen du (horrela pentsatzen du gizonetako % 44k eta emakumeetako % 38k), zifra hori ez dago duela hamar urte erregistratu zenetik oso urrun (% 35).

Rol-banaketa oso markatua duen familia tradizionalaren ereduaren arabera, gizonetako espazio publikoa zuten eta emakumeak eremu pribatura mugatzen ziren. Eredu tradizional hori lausotu den arren, familia- eta harreman-eredu berriak gero eta ohikoagoak diren arren, datuek adierazten dute oraindik ere gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeki urrun gaudela.

Oraindik ezin da esan Euskadiko etxeetan berdintasuna lortu denik. Etxeko lanetan ohikotasunez laguntzen duten neska nerabeen proportzioa handiagoa da mutilena baino.

Eustatek 2008an egindako *Denboraren Aurrekontuen Inkestako* zifrak kontuan hartuz gero, Euskadiko gizonetako batez beste 1 ordu eta 29 minutu ematen zuten etxeko lanak egiten, aldiz, emakumeek lan horiek egiten 3 ordu eta 33 minutu ematen dute batez beste egunean⁴⁰.

Horrekin lotuta, garrantzitsua da horrek belaunaldi berrietan izan dezakeen eragina nabarmentzea; izan ere praktikan belaunaldi berriak oraindik ez dira ari berdintasunean hezten, eta gizon eta emakumeen rol-banaketa tradizionala errepikatzen ari da. 2011ko datuek agerian uzten dute Euskadin ohikotasunez etxeko lanetan laguntzen duten neska nerabeen kopurua handiagoa dela mutil nerabeena baino (nesken artean 11 eta 14 urte artean % 49,7k laguntzen du egunero edo ia egunero etxeko zereginetan; aldiz, mutilen artean % 43k)⁴¹.

³⁸ Eustat. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2012.

³⁹ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Espresuki eskatuta. 2013ko datuak.

⁴⁰ Eustat. Denbora Aurrekontuen Inkesta. 2008


⁴¹ EMAKUNDE. Euskadiko nerabeak. Hurbilketa ahalduztetik abiatuta. 2008

Gehitu beharrekoa da 2012ko datuen arabera Euskadiko herritarren % 47k uste duela azken hogeitortan familia barruan seme-alaben berdintasuna ez dela handitu⁴².

Babesgabetasuna

Arartekoak 2012an egindako Eusko Legebiltzarreko Urteko Txostena 2012 txostenean jasotako informazioaren arabera, EAEko foru-aldundietako haurren gizarte-zerbitzuetan 1.918 adingabeko berriri eman zitzaizkien arreta. Bilakaerak erakusten dute kopuruak modu jarraian egin duela gora azken urteetan. Eta zehazki Araban izan da igoera nabarmenena babesgabetasun maila baloratzera Haurren Zerbitzura joaten diren adingabekoen artean. Horietako askori familiako esku-hartzearen bidez (foru aldundikoa edo udalekoa) ematen zaie arreta, beraz, ez da gertatu familietatik bereiztea⁴³.

6. GRAFIKOA: FORU ALDUNDIETAKO HAURREN GIZARTE ZERBITZUEK ARRETA EMANDAKO ADINGABEKO BERRIEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE 1995-2012



Iturria: bertan egina Arartekoaren 2012ko Eusko Legebiltzarreko Urteko Txosteneko datuen arabera.

Egungo sistema juridikoak adingabekoen zaintza fisiko eta morala gurasoei ematen die eta familiaren eskema barruan egiten du hori. Konstituzioak gurasoen funtzioak honela zehazten ditu: *“edonolako laguntza eman behar die ezkontza barruan eta handik kanpo izandako seme-alabei, adingabe diren bitartean eta legez dagozkien gainerako kasuetan”*⁴⁴. Ordenamendu juridikoak gurasoei seme-alaben zaintza, arreta eta hezkuntzarako funtzioak egin ahal izateko ematen dizkien eskubide eta betebeharren multzoari “guraso ahala” deitu izan zaio. Kontzeptu horrek biltzen du seme-alabak zaintzeko funtzioa, alhoan izatea, hezkuntza osoa eskaintzea, ordezkaritza ematea eta haien ondasunak administratzea. Dena den, zaintza horiek gabe gera daiteke osorik edo zati batean, aitaren edo amaren heriotzagatik edo ezintasunagatik, giza sorkuntza ekarri duten harremanen ondorioz kondenatua izan denean, epai penal irmoaren bidez eta abar. Guraso ahala etetea haurra babesteko neurri gisa ulertzen da, eta haren onurarako hartu behar da.

2.600 adingabe baino gehiago dago zaintzapean edo tutoretzapean.

Eskuragarri dauden azken datuen arabera, 2011n 2.625 adingabeko zeuden zaintzapean⁴⁵ edo tutoretzapean⁴⁶, 2010ean erregistratutakoaren datu oso antzekoa (2.646), 2003tik izandako zaintzapeko edo tutoretzapeko adingabekoen kopuru handiena erregistratu zenean (ia 1.000 adingabeko gutxiago izan ziren orduan). 2011ko datuek 18 urtetik beherako ehun mila adingabekotik 779 hurreko tasa adierazten dute (2008an 589)⁴⁷.

Haurren Gizarte Zerbitzuetan arreta emandako neska-mutilei aplikatzen zaizkien babes-neurri nagusiak egoitza-harrera eta familia-harrera dira. Azken urteetan familia-harrera lehenesteko

⁴² Eustat. Laneko bizitzaren, familiako bizitzaren eta bizitza pertsonalaren kontziliazioari buruzko inkesta. 2012.

⁴³ Arartekoa. *Eusko Legebiltzarreko Urteko txostena. 2012. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena. 2013*

⁴⁴ Espainiako Konstituzioaren 39.3. artikulua.

⁴⁵ Pertsona edo erakunde publiko batek adingabekoa aldi baterako edo guraso-ahala dutenen borondatez jasotzen duen kasuari egiten dio erreferentzia zaintzak eta horiek adingabekoaz arduratzeko, beraiekin izateko, zaintzeko, elikatzeko, hezteko eta prestakuntza osoa emateko betebeharrak bere gain hartuko dute.

⁴⁶ Tutoretza arbasorik ez duen edo, izanda ere, guraso-ahala bete ezin duten adingabekoei tutoretza emateaz arduratzen da.

⁴⁷ Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioa. Haurren Behatokia. Haurrak Babesteko Neurrien Datu Estatistikoen Buletina. 2011ko datuak.

esfortzua egin da, eta pixkanaka igoera hori igotzen ari dela ikus daiteke, baina oraindik ere egoitza-harrera da nagusia.

2012an adingabeko horien % 54,31 egoitza-harreran zegoen; aldiz, 2001ean, 10 adingabekotik 7k (% 73,26) harrera mota hori zuten.

Adingabeko horien kasuan adopzioa ere aplika daiteke. Azken urteotan adopzio kopuruak behera egin du, bai nazio mailakoak, bai nazioartekoak. Gainera, datu garrantzitsuena da ia bi hamarkadatan lehen aldiz nazio mailako adopzioen eskaera kopuruak gaintitu egin duela nazioartekoena; haiak 2001ean puntu gorena lortu ostean atzerakada izan dute.

7. GRAFIKOA: NAZIO MAILAKO ETA NAZIOARTEKO ADOPZIO ESKAEREN BILAKAERA. EAE 2009-2012




Iturria: bertan egin a Arartekoaren 2012ko Eusko Legebiltzarraren Urteko Txosteneko datuen arabera.

Jaitsiera hori krisi-egoerak markatutakoa izan daiteke, baina zenbait txostenen arabera⁴⁸, adopzio-prozesu horien zailtasuna handiagoa dela jakiteak ere eragin dezake.

Adopzio kopurua (nazio mailakoa eta nazioarteko) murriztu egin da eta ia bi hamarkadatan lehen aldiz nazio mailako eskaerak nazioartekoak baino gehiago dira.

Bestalde, 2012ko abenduaren 31n foru-aldundietako haurren gizarte-zerbitzuetan harreraren hartutako lagundu gabeko adingabeko migratzaileen kopurua aurreko urteetan baino txikiagoa izan zen (365 2012an; 2009an lortu zen kopuru handiena, 654 harrerarekin). Dena den, urte horretan arreta emandako adingabeko "berrien" kopurua aurreko urtearekiko pixka bat igo zen, eta Bizkaia eta Gipuzkoa izan ziren igoera izan zuten lurraldeak, Araban jaitsiera nabarmena izan baitzen.

8. GRAFIKOA: HARRERAN HARTUTAKO LAGUNDU GABEKO ADINGABEKO ATZERRITAR "BERRIEN" KOPURUAREN ETA ABENDUAREN 31N FORU ALDUNDIETAN HAURREN GIZARTE ZERBITZUEK HARRERAN HARTUTAKO LAGUNDU GABEKO ADINGABEKO ATZERRITARREN KOPURUAREN BILAKAERA EAE 2005-2012



Iturria: bertan egin a Arartekoaren 2012ko Eusko Legebiltzarraren Urteko Txosteneko datuen arabera.

⁴⁸ Arartekoa. Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena. 2012. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena. 2013

Inbertsioa gizarte-zerbitzuetan

Euskal Gizarte Ongizate Kontseiluak 2009an argitaratutako azken txostenaren arabera, EAEko erakunde publikoetatik 198 milioi euro bideratu ziren familia, haur, gazte eta emakumeen kolektiboari arreta emateko zerbitzuetara; hau da, ia biztanle bakoitzeko 90 euroko batez besteko gastua, bost urte lehenago *per capita* zegoen gastua baino nabarmen altuagoa (40,90 euro)⁴⁹. Familien gastua⁵⁰ 2007an BPGren % 1,23koa izan zen (% 64 gastu publikoa da), baina 2005ean erregistratutakoa baino baxuagoa (% 1,70)⁵¹.

Udalek beste eragile batzuekiko gastua murriztu zuten (foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta Administrazio zentrala). Tokiko erakundeek familia, haur, gazte eta emakumeei bideratutako gizarte-zerbitzuetako gastu publiko korrontearen % 16,80 finantzatu zuten (% 21,5 bost urte lehenago), aldiz, aldundiek % 53,4 estali zuten⁵².

Familia, emakume, haur eta gazteen kolektiboari bideratutako leku kopurua ere handitu egin da, batez ere, haur eta gazteei bideratutako lekuak ugaritu direlako.

⁴⁹ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Ongizatearen Euskadiko kontseilua. *Gizarte Zerbitzuen Euskadiko Kontseiluaren II Txostena. Gizarte Zerbitzuen egoera EAEn. 2012ko otsaila*

⁵⁰ Datua lortzeko erabilitako txostenak analisisian familia, haurrak, gazteria eta emakumea biltzen ditu. Gizarte-zerbitzuetan egindako gastua da (etxeko zerbitzuak, kontziliaziorako laguntzak, familia-harrerako programak eta abar)

⁵¹ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Ongizatearen Euskadiko kontseilua. EAEn Gizarte Zerbitzuen egoerari buruzko VIII txostena. 2009

⁵² Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Ongizatearen Euskadiko kontseilua. *Gizarte Zerbitzuen Euskadiko Kontseiluaren II Txostena. Gizarte Zerbitzuen egoera EAEn. 2012ko otsaila*

Osasuna

Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa sinatu zuten estatuek konpromisoa dute haur eta nerabeen kolektiboari osasuna ahalik eta maila altuenenean bermatzeko.

Inbertsioa osasunean

Osasunean egindako inbertsioa geldituta egon daiteke. 2012an osasunean egindako gastua biztanle bakoitzeko (2.578 euro) 2010ean baino pixka bat baxuagoa izan zen. Gainera, azken urteetan pediatria bakoitzeko adingabekoen ratioa handitu egin da.

2012an EAEn BPGrekiko osasunean egindako gastua % 8,8 izan zen; 2008arekiko puntu bateko igoera. Gastu guztia, ordea, ez zen handiagoa izan, eta biztanle bakoitzeko gastuaren ratioa jaitsi egin zen, 2010ean 2.656 euro izatetik 2012an 2.578 izatera. Horrek esan nahi du *per capita* gastua oraindik ere 2008ko tasatik gora badago ere (orduan pertsonako 2.433 eurokoa izan zen), krisiak osasunean egindako inbertsioa geldiaraztea eragin izan dezakeela⁵³.

Gainera, pediatria bakoitzeko 0 eta 13 urte arteko adingabekoen ratioa areagotu da. 2010ean 824koa izan zen, aldiz, aurreko urteetan, pediatria bakoitzak haur kopuru txikiagoa izaten zuen (811 2009an eta 805 2008an)⁵⁴.

Osasun-sistemaren garapen maila neurtzeko adierazle tradizionalenak aztertuz gero, esate baterako, haurren heriotza-tasa EAEn azken urteetan murriztu egin dela esan dezakegu (adingabekoen 2,58 heriotza bizirik jaiotako 1.000 haurreko 2012an; aldiz, % 6,73koa zen duela bi hamarkada) eta estatu mailako tasaren azpitik dago (% 3,06), baita Europakotik ere (% 4,1)⁵⁵.

Euskadiko haurren heriotza-tasa (% 2,58) estatukoa eta Europakoa baino baxuagoa da.

Azken hamarkadetan adingabekoen heriotza-tasa espezifikoan jaitsiera izan dela ere aipatu behar da (2012an EAEn 0,25 heriotza izan ziren 18 urtez azpiko 1.000 biztanleko; aldiz, 2000. Urtean % 0,38 izan ziren)⁵⁶.

Dena den, ez dira adierazle bakarrak adin txikieneko kolektiboari dagokionez osasun-sistemaren egokitasuna eta eraginkortasuna neurtzeko. Osasunaz ikuspegi zabalarekin hitz egitean, ez ditugu ahaztu behar gizarte batean ohikoenak diren osasun-arazoak, elikadurari dagokionez biztanleek dituzten ohiturak, kirola, substantzien kontsumoa, sexu-harremanak eta abar.

Osasun-arazoak

Eskuragarri dauden azken datuen arabera, 2013an, 0 eta 14 urte arteko biztanleriaren % 13,7k osasun-arazo kronikoren bat du⁵⁷ (mutilen % 15,9k eta nesken % 11,2k). Maila sozioekonomikoaren araberrako aldea nabarmena da; izan ere, mailarik baxuenean⁵⁸ dauden

⁵³ Eustat. Osasun-kontua.

⁵⁴ Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila eta Eustat. Ospitaleez kanpoko publikoaren estatistika. 2010

⁵⁵ EIN. Oinarritzko Adierazle Demografikoak. 2012

⁵⁶ EIN. Biztanleriaren Mugimendu Naturalak. 2012

⁵⁷ Arazo kronikoak: kataratak, gorreria, tiroidea, asma, alergia, minbizia, antsietatea, depresioa, anemia eta abar.

⁵⁸ Kualifikatu gabeko langileak.

hamarretik hiruk (% 31) arazo kronikoren bat du eta egoera sozioekonomiko hobea dutenen artean⁵⁹, aldiz, eragina % 11,6ra⁶⁰ jaisten da.

0 eta 14 urte arteko biztanleen % 13,7k du osasun-arazo kronikoren bat eta ehunekoak nabarmen handiago da (% 31) maila sozioekonomiko baxuagoak direnen kasuan.

Arazo kroniko edo iraupen luzeko arazo batzuk modu espezifikoan hartuta, 2011-2012ko⁶¹ datuen arabera, adin horretako EAEko biztanleen % 12,41ek alergia kronikoa du, estatukoa baino ehuneko altuxeagoa (% 10,26) eta 2006an⁶² erregistratutakoa baino pixka bat gorago (% 11,54). % 6,18k asma du (% 5,30 Espainian); kasu honetan 2006an⁶³ erregistratutakoa baino nabarmen baxuagoa da (% 13,31). Eta aipatu beharrekoa da % 0,51k tumore gaiztoaren bat duela (leuzemia eta linfoma barne).

Bestalde, buru-osasunean arreta jarrita, 0 eta 14 urte arteko haur eta nerabe euskaldunen % 2,57k jarrera-nahasmenduak ditu. Ehuneko hori estatukoaren oso parekoa da eta aurreko urteetan baino pixka bat altuagoa (2006an % 2,07⁶⁴). % 0,25ek buru-nahasmenduren bat du (depresioa, antsietatea eta abar), baina oraingoan EAEko tasa estatukoa baino baxuagoa da (% 1,05) eta baita 2006an⁶⁵ erregistratutakoa baino baxuagoa ere (% 2,11)⁶⁶.

2013ko datu zehatzagoen⁶⁷ arabera, 15 eta 24 urte arteko gazteen kolektiboko % 10ek antsietate- eta depresio-sintomak ditu (2007an % 7,5ek) eta ehunekoak % 18,4 arte egiten du gora nesken artean. Beren buruaz beste egiteaz inoiz pentsatu dutenak ere gehiago dira neskak (nesken % 3,8 eta mutilen % 2)⁶⁸.

Jarrera-nahasmenduek 0 eta 14 urte arteko neska-mutil eta nerabeen % 2,57ri eragiten diote.

2010eko datuen arabera, adin-tarte horretako Euskadiko gazteen % 2k aitortu du psikofarmakoak kontsumitu dituela mediku-errezetarekin. 2008an erregistratutakoa baino ehuneko baxuagoa da (% 4,10). Tasak gora egiten du bizitzan noizbait kontsumitzeaz ari bagara: % 6,60⁶⁹.

15 eta 24 urte arteko biztanleen % 10ek antsietate- eta depresio-sintomak ditu.

Aipatzekoa da, bestalde, azken urteetan Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko buru-osasuneko zerbitzuen sarean arreta emandako adingabekoen kopurua ugartu egin dela. 2013an 18 urtez azpiko 11.400 neska-mutil hartu zituzten sare horretan (9.472 2010ean), hau da, zerbitzu horietan arreta emandako gutzitza % 13 baino zertxobait gehiago, eta Euskadiko adingabekoen % 2,79⁷⁰.

Oraindik ere onartu ez bada, laster Haur eta Nerabeen Psikiatriako espezialitatea osasun publikoan sartzeari aurrez ikusi dute *Osasun-zientzietan espezializatutako osasuneko prestakuntza-sistemaren tronkaltasuna eta beste alderdi batzuk arautzen dituen Errege Dekretuaren Proiektuaren* testuinguruan. Horrekin datu eguneratuagoak eta espezifikoagoak izatea espero dugu, haur eta gazteen buru-osasunari dagokionez.

⁵⁹ 10 soldatapeko edo gehiagoko saltokietako zuzendari eta gerenteak eta tradizionalki unibertsitateko lizentziaturekin lotutako profesionalak.

⁶⁰ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

⁶¹ EIN. Osasunaren Inkesta Nazionala 2011-2012.

⁶² 2006ko datuak 0 eta 15 urte arteko biztanleenak dira.

⁶³ 2006ko datuak 0 eta 15 urte arteko biztanleenak dira.

⁶⁴ 2006ko datuak 0 eta 15 urte arteko biztanleenak dira.

⁶⁵ 2006ko datuak 0 eta 15 urte arteko biztanleenak dira.

⁶⁶ EIN. Osasunaren Inkesta Nazionala 2011-2012.

⁶⁷ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

⁶⁸ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

⁶⁹ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. Euskadi eta Drogak 2010.

⁷⁰ OSAKIDETZA. Espresuki eskatuta.


Obesitatea duten adingabekoen biztanleria igo egin da azken urtean. 2 eta 17 urte arteko Haur eta nerabeen % 6,97k obesitatea du. 15 eta 24 urte arteko biztanleriaren % 7,9k astean hirutan edo gehiagotan janari lasterra kontsumitzen du.

Elikadura, nutrizioa eta osasuna elkarrekin lotuta dauden gaiak dira. Ezin da osasun-egoera bikainean egon nutrizio egokirik izan ezean, eta horrek, aldi berean, elikadura egokia eskatzen du. Unicefek⁷¹ egindako txostenek diotenez, Espainian desnutrizioaz hitz egin ezin bada ere, nutrizio-kalitatea okertu dela ikus daiteke.

Alde batetik, EAEn obesitatea duten haur eta nerabeen ehunekoaren igoerari arreta jarri behar zaio. Zehazki, 2 eta 17 urte arteko biztanleriaren % 6,97k obesitatea zuen 2012an; aldiz, 2006an, % 5,14koa zen datua. Dena den, estatu mailan erregistratutakoa baino tasa nabarmen baxuagoa da (% 9,56)⁷².

2013ko datuen arabera, 15 eta 24 urte arteko biztanleriaren % 7,9k astean hirutan edo gehiagotan kontsumitzen du janari lasterra (% 8,8k mutilen artean); biztanleria osoak egiten duen mota horretako kontsumoa bikoiztu egiten du (% 3,4)⁷³. Ehunekoak aurreko kontsultetatik murriztu direla dirudien arren, nabarmendu beharrekoa da gaur egun kolektibo horren % 4,9k barazkirik ez duela jaten inoiz edo ia inoiz (% 2,2 biztanleria osoaren kasuan); eta arraina inoiz edo ia inoiz jaten ez duten ehunekoak ere % 5 ingurukoa da; datu hori bikoiztu egiten da (% 10,3) maila sozioekonomiko baxuenekoak diren gazteen artean⁷⁴.

9. GRAFIKOA: JANARI LASTERRAREN, BARAZKIEN ETA ARRAINAREN KONTSUMOA. 2013



Iturria: bertan egina, Osasun Saileko 2013ko Euskadiko Osasun Inkestaren datuen arabera.

Talde sozioekonomikoen arabera nabarmendutako alde horiek direla eta, arreta berezia jarri behar diogu alderdi horretan egungo krisi-egoerak adingabekoak bizi diren eta baliabide gutxien dituzten etxeetan dituzten elikadura-jokabideetan izan dezakeen eraginari. Seme-alabak dituzten familien kasurako datu espezifikorik ez dugun arren, kontuan hartzekoa da oro har sozioekonomikoki egoera ahulenean dauden etxeek dutela joera handiena elikadura-ohiturak aldatzeko. 2012ko *Txirotasunaren eta gizarte-desberdintasunari buruzko inkestaren*⁷⁵ arabera, Euskadiko biztanleen % 7,7 elikadura-arazo larriak edo oso larriak dituzten etxeetan bizi da (% 5,7 2008an eta % 3,5 2000. urtean). Gainera, biztanleen % 3,6 gutxienez bi egunez behin proteinadun otordua ordaindu ezin duten etxeetan bizi da (% 2,3 2008an)⁷⁶.

Badirudi krisiak Euskadiko etxeetako elikadura-jokabideetan eragina duela. Elikadura-arazo larriak edo oso larriak dituzten etxeen proportzioa handitu egin da (% 7,7), baita gutxienez bi egunetik behin proteinadun otordua ordaindu ezin duten etxeena ere (% 3,6).

⁷¹ Aipatu beharrekoa da Haurrak Espainian, 2010/2011. Unicef Espainiako Batzordea.

⁷² Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa eta EIN. Osasunaren Inkesta Nazionala 2011-2012

⁷³ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

⁷⁴ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

⁷⁵ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2012ko Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta

⁷⁶ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2012ko Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta

Haurtxoen elikadurari dagokionez, profesionalek batez ere amagandiko edoskitzearen alde egiten dute haurtxoari ekarpen nutrizionala, immunologikoa eta emozionala emateko modurik egokiena eta naturalena dela aintzat hartuta. 2012ko datuek amagandiko edoskitzeaz soilik elikatzen diren haur jaioberrien proportzioan pixkanakako gorakada erakusten dute. Hala, 2012an, EAEn jaio berri ziren haurtxoen % 70 amagandiko edoskitze bidez soilik elikatu ziren; ehuneko hori % 67koa zen 2011n, eta % 64koa, 2009an⁷⁷.

Bestalde, nerabeen elikadurarekin lotuta, haiek irudi fisikoari ematen dioten garrantzia adierazten duten datuei arreta jartzea komeni da, gizarte-arrakastarako eta gizarteratzerako baldintza baita. Horrez gain, itxura fisikoarekin frustrazioa sortuz gero erator daitezkeen ondorioak ere kontuan hartu behar dira.

15 eta 24 urte arteko Euskadiko gazteen % 60,4 soilik dago gustura duen pisuarekin.

2013ko datuen arabera, 15 eta 24 urte arteko Euskadiko gazteen % 60,4 soilik dago gustura duen pisuarekin (gainerakoek pisua galdu edo irabazi nahiko lukete). Ehuneko hori % 55,1 arte jaisten da nesken kasuan⁷⁸. Neskek, hainbat ikerketaren arabera⁷⁹, neurri handiagoan egin behar diote aurre baldintzatzaile fisikoari eta ezarritako kanonetara egokitu nahi izaten dute dieten bidez eta abar.

2012 urtean EAEn elikadura-jokabidearen aitortutako 6 kasu berri identifikatu ziren guztira (anorexia, bulimia) 18 urtez azpiko biztanleen artean (11 kasu gutxiago 2010ean baino) eta kasuen % 83 emakumeak izan ziren (% 94 2010ean).

Dena den, nabarmendu behar da ariketa osasungarria egiten duen 15 eta 24 urte arteko gazteen proportzioa % 77,7koa zela 2012an; 2007an, aldiz, ehunekoa % 63,9koa zen⁸⁰. Hori bai, mutilen artean zabalduago zegoen ohitura (% 81,9) nesken artean baino (% 73,3)⁸¹.

Elikadura alde batera utzita, adingabeko biztanleen osasun-ohitura kaltegarrienen artean tabakoaren, alkoholaren eta drogen kontsumoa aipatu behar da. Nerabeen kasuan, normalizatuen dagoen kontsumoa alkoholarena da, batez ere espazio ludikoetan eta desinhibizioari lotutakoetan. 2010eko *Euskadi eta Drogak*⁸² inkestaren arabera, 15 eta 19 urte arteko biztanleen % 77,10ek inkesta egin aurreko 30 egunetan alkohol-edariren bat kontsumitu zuen, bi urte lehenago erregistratutakoa baino nabarmen ehuneko altuagoan (% 66,5 2008an). Dena den, alkoholarekin izandako lehen kontaktua areagotu egin den artean, ohiturazko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa badirudi jaitsi egin dela azken urteotan.

Alde batetik, 2010ean adin horretako biztanleriaren % 11,80k alkohola ohikotasunez kontsumitzen zuen (azken hilabeteen alkohola hilean sei egunetan edo gehiagotan kontsumitu zuen); aldiz, 2008an ehunekoa % 13,5ekoa zen. Bestalde, 10etik ia 2k gehiegi edaten zuten edo arrisku-kontsumoa zuten asteburuetan (% 19); 2008an zifra hori % 26,2koa zen eta 2006an % 30ekoa⁸³.

Alkohola kontsumitzen duten adingabeen ehunekoa igo egin da (15 eta 19 urte arteko biztanleen % 77,10ek edaten du alkohola); dena den, ohiko kontsumoa eta arrisku-kontsumoa jaitsi egin dira azken urteotan.

⁷⁷ Osasun Saila. EAeko Jaiotzetiko Gaixotasunen Jaioberriko Bahetze Programa. 2013ko memoria.

⁷⁸ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

⁷⁹ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa EAEn. 2011ko maiatza.

⁸⁰ 2007ko datuak 16 eta 24 urte arteko biztanleenak dira.

⁸¹ Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. Euskadiko Osasun Inkesta 2013 eta EAeko Osasun Inkesta 2007.

⁸² Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. *Euskadi eta Drogak 2010*.

⁸³ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. *Euskadi eta Drogak 2010, Euskadi eta Drogak 2008 eta Euskadi eta Drogak 2006*.

Kontsumoa adin goiztiarretan hasten da. 15 eta 19 urte arteko gazteen artean, alkoholaren kontsumo-hasieraren batez besteko adina 14,8 urtekoa da eta adin horretako 10 gaztetik 3 15 urte izan aurretik hasi ziren edaten⁸⁴.

Tabakoaren eta kanabisaren kontsumoaren hasiera-adina ere 15 urte ingurukoa da, sexuaren arabera alderik gabe tabakoaren kontsumoaren hasieran eta kanabisaren kasuan, berriz, neskak pixka bat beranduago hasita.

Tabakoa ohikotasunez erretzen duten gazteen garrantzia badirudi jaitsi egin dela. 2008an gazteen % 23,70 inguru ohiko erretzailea zen; aldiz, 2010ean, ehunekoa % 16,60koa zen (% 14,70 nesken kasuan)⁸⁵.

Kanabisari dagokionez, 15 eta 19 urte arteko gazteen % 14k inguruk gaur egun kontsumitzen du (kontsulta egin aurreko 30 egunetan kanabisa kontsumitu zuen). Datu hori biztanleria orokorrarenaren gainetik dago nabarmen (% 7,20), baina 2008ko datuarekiko jaitsi egin da (% 19). Gainera, 15 eta 19 urte arteko biztanleriaren % 33,50ek kanabisa kontsumitu du bizitzan noizbait (2008ko datuekiko hamar puntu jaitsi da ehuneko hori)⁸⁶.


Gainerako droga ilegalek presentzia txikiagoa dute kolektiboan eta beranduago hasten dira (gutxi gorabehera 20 urterekin). % 1,4 inguruk gaur egun kokaina kontsumitzen du (kontsulta egin aurreko 30 egunetan kokaina kontsumitu zuen) eta % 1,7k substantzia hori kontsumitu izan zuen bizitzan noizbait. Horrek esan nahi du 2008an jasotako informazioarekiko substantzia horren kontsumoa bikoiztu egin dela, eta beste substantzia batzuen kontsumoa baino altuagoa dela, hala nola estasia baino (15 eta 19 urte arteko biztanleen % 0,60k kontsumitzen du)⁸⁷.

Alkoholaren, tabakoaren eta kanabisaren kontsumoa 15 urte inguruan hasten da.

Tabakoaren ohiko erretzaileen ehunekoa jaitsi egin da, baita kanabisaren egungo kontsumo-tasa ere.

Osakidetzako toxikomania-zentroen sarean tratamendua hasi duten pertsonen gutzizkoarekin alderatuta, 19 urtez azpikoen garrantzia handitu egin da azken urteotan.

10. GRAFIKOA: ALKOHOLAREN ETA TABAKOAREN OHIKO KONTSUMOAREN ETA KANABISAREN EGUNGO KONTSUMOAREN BILAKAERA.EAE 2008-2010



Iturria: bertan egina, Eusko Jaurlaritzako Droga-mendekotasunen Zuzendaritzaren 2008ko eta 2010eko *Euskadi eta Drogak* txosteneko datuen arabera.

⁸⁴ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. *Euskadi eta Drogak 2010*.

⁸⁵ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. *Euskadi eta Drogak 2010 eta Euskadi eta Drogak 2008*.

⁸⁶ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. *Euskadi eta Drogak 2010 eta Euskadi eta Drogak 2008*.

⁸⁷ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. *Euskadi eta Drogak 2008*.

Garrantzitsua da aipatzea 2011n, Osakidetzako toxikomaniak tratatzeko zentroyen sarean 15 eta 19 urte arteko 121 gaztek hasi zutela tratamendua. Tratamendua hasi zuten guztien % 4,50 da kopuru hori; hau da, 2009an (% 4,10) eta 2006an baino gehiago (19 urtetik beherakoak % 3,7 ziren orduan)⁸⁸.

Bestalde, 2006 eta 2008 artean, alkoholaren kontsumoarekiko larritasun-pertzepzioa igo egin zela ikusi ahal izan zen. Hain zuzen ere, 15 eta 19 urte arteko gazteen erdiak larria edo oso larria jotzen zuen alkoholaren kontsumoa 2008an (% 43k zuen iritzi hori 2006an). 2008an, hamaretik zazpik (% 71,20) jotzen zuen larria edo oso larria kanabisaren kontsumoa (% 67,20 2006an) eta hamarretik seik (% 61,50) zuen iritzi hori tabakoaren kontsumoaz (% 63,90 2006an)⁸⁹.

Sexualitatea

Zenbait azterketak⁹⁰ adierazi dute sexu-harremanez familia-eremuan hitz egitea oraindik ere tabua dela bai seme-alabentzat, bai gurasoentzat, eta badirudi hezkuntza afektibo-sexuala eskolaren esku uzten dela oraindik ere. Hezkuntza afektibo-sexualak azken urteotan bilakaera izan duen arren, kolektiboan zuzenean esku hartzen duten eragile batzuen ikuspegitik komenigarria litzateke ikuspegi afektiboa lantzen aurrera egitea, baita erantzukizun-jarrerak, enpatia edo berdintasuna eta norberaren beharrak eta gainerakoen beharrak identifikatzeko jarrerak lantzea ere.

14 eta 17 urte arteko hamar gaztetik hiruk sexu-harreman osoak izan dituzte.

Datu berriagoetara sartzerik izan ez den arren, 2006an 14 eta 17 urte arteko gazteen % 30,20k sexu-harreman osoak izan zituen (nesken % 32k eta mutilen % 27k); estatu mailan erregistratutakoaren antzeko ehunekoa da (% 32). Harreman mota horiek izandako gazteen artean, lehen sexu-harreman osoa izandako batez besteko adina 15 urtekoa zen⁹¹.

Badirudi bilakaera gehien izan den gaietako bat metodo antisorgailuen erabilera izan dela. Sexu-harremanak izan zituela adierazitako Euskadiko gazteen % 92k esan zuen metodo antisorgailu segurua erabili zuela (preserbatiboa edo pilula). Ikastetxe pribatuetan ikasten duten gazteen kasuan, ehunekoa % 96koa zen (ikastetxe publikoetako % 88,60en aurrean). Estatu mailan, metodo antisorgailu seguruen erabilera % 88,90ekoa zen⁹².

Hala ere, beste datu batzuek gaiaren gaineko gogoeta eginarazten digute. 2012an, 15 urte edo gutxiagoko mila neskatoko 1,77 jaiotza izan zen, eta datu hori % 9,32 igotzen da atzerriko neskatok direnean⁹³.

15 eta 19 urte arteko biztanleen % 4,50ek adierazi du alkohola edo drogak kontsumitu ostean arriskuko sexu-jokabideak izan dituela.

⁸⁸ Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila. Toxikomaniari buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT). 2011

⁸⁹ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. *Euskadi eta Drogak 2008*.

⁹⁰ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2010eko uztaila*.

⁹¹ Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak*.

⁹² Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak*.

⁹³ EIN. Oinarritzko Adierazle Demografikoak. 2012

2011n, 20 urtetik beherako 426 neska jasan zuten haurdunaldiaren borondatezko etendura. Kopuruak 2005. urtearekin alderatuta gora egin badu ere (borondatezko 248 abortu erregistratu ziren guztira), 20 urtez azpiko gazteen abortuak duen garrantziak ia berdin jarraitzen du (2011n % 10,29 eta 2005ean % 10,41) eta, beraz, 2011n estatuan erregistratutakoaren azpitik jarraitzen du (% 12,32).

Gainera, 2010eko datuen arabera, 15 eta 19 urte arteko gazteen % 4,50ek arriskuko sexu-jokabideak izan ditu (babesik gabeko sexu-harremanak eta/edo nahi gabeko sexu-harermanak) alkohola eta beste droga batzuk kontsumitu ostean⁹⁴.

Osasunaren pertzepzio subjektiboa

Interesgarria da gogoratzea ikerketa batzuek⁹⁵ zehazten dutela gizarte baten ongizatearen garapena zenbat eta handiagoa izan, orduan eta baxuagoa dela osasunaren pertzepzio negatiboa; osasuna biztanleen hezkuntza mailarekin lotzen dutenean bezala, hala, zenbat eta heziketa maila altuagoa izan, orduan eta hobeak dira osasun-ohiturak edo osasun-sistemaren erabilera bera, eta epe luzean, horrek biztanle osasuntsuagoa eta mendekotasun gutxiagokoak sortzen ditu.

Biztanleria gazteak duela urte batzuk baino osasunaren pertzepzio hobea du (15 eta 24 urte arteko biztanleen % 52,4k uste du osasun oso ona duela).

Gazteek duten osasunari buruzko balorazioa badirudi hobetu egin dela azken urteetan eta kolektiboak beste adin talde batzuetakoa baino asebetetze hobea du. 2012an, 15 eta 24 urte arteko biztanleen % 52,4k oso osasun ona duela pentsatzen du eta 2007an⁹⁶, berriz, % 33,8k⁹⁷ pentsatzen zuen horrela. Kasu honetan, maila sozioekonomikoaren arabera ere aldeak daude, egoera sozioekonomiko hobea duten pertsonen osasunaren autopertzepzio hobea baitute (maila altuagoa dutenen % 57,8k⁹⁸ uste du osasun oso ona duela; aldiz, maila baxuagokoen artean⁹⁹ % 50,1ek uste du hori).

Mendekotasuna

Unicefek 2013an argitaratutako *Haurren mundu mailako egoera. Ezintasuna duten haurrak*¹⁰⁰ txostenean gizarte bateratzaileak eraikitzeko lanean jarraitzea beharrezkoa dela adierazi zuten, oztupoak kentzeko eta bazterkeria desagerrarazteko, gaur egun ezintasunak dituzten eta eguneroko bizitzako jarduerak autonomiaz egiteko mugaren bat duten haurrek dituzten bazterkeria mota guztiak desagerrarazteko.

⁹⁴ Eusko Jaurlaritzako Drogamendekotasunaren Zuzendaritza. Euskadi eta Drogak 2010.

⁹⁵ Hezkuntza Ministerioa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Estatuko Idazkaritza Heziketa-Ikerketa, Berrikuntza eta Irakasleen Prestakuntzako Institutua- IFFIE. *Eskola-uztearen goiztiarraren kostuak. Espainian eskola-uzte goiztiarrak eragindako diruzko eta ez-diruzko galeren hurbilketa bat*. Madril: Idazkaritza Orokor Teknikoa, 2011.

⁹⁶ 2007ko adin-tartea 16 eta 24 urte arteko biztanleriari dagokio.

⁹⁷ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

⁹⁸ 10 soldatapeko edo gehiagoko saltokietako zuzendari eta gerenteak eta tradizionalki unibertsitateko lizentziaturekin lotutako profesionalak.

⁹⁹ Kualifikatu gabeko langileak.

¹⁰⁰ Unicef. *Haurren mundu mailako egoera. Ezintasuna duten haurrak. 2013ko maiatza*.

**0 eta 14 urte
arteko 6.500 haur
eta nerabe
inguruk (kolektibo
horretako % 2,2)
jardueraren muga
kronikoren bat du.**

Bazterkeria gainditzeko moduetako bat da ikusezintasuna gainditzea, eta hala ere, garrantzitsua da nabarmentzea ezintasunak dituzten edo eguneroko jarduerak egiteko mugak dituzten adingabekoei buruzko informazioa, eta horrek bizitzan eragiten dien moduei buruzko informazioa oso eskasa dela.

Jardueraren nolabaiteko mugapen kronikoa¹⁰¹ duten 0 eta 14 urte arteko adingabeak, 2013ko datuen arabera¹⁰², adin horretako biztanleriaren % 2,2 dira, 6.500 inguru. % 66,38k, hain zuzen ere, jardueraren erabateko mugapena du¹⁰³.

¹⁰¹ Desgaitasunak epe luzeko mugak dira, osasunaren edozein arazo kronikorekiko bigarren mailakoak. Egoera funtzionalaren dimentsioa neurtzen duen osasun-neurri bat da: pertsona bat zer egiteko gai den. Osasun fisiko ona duten pertsonentzat arruntak diren hainbat motatako jarduerak egitea edo egiteko gaitasuna. Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko Osasun Inkestan erabilitako egoera funtzionalaren neurriak aukera ematen du biztanle adingabeen jardueretako mugatze kronikoan larritasun mailak bereizteko: 1) *Erabateko mugatzea jarduera nagusian*: adin eta sexu bereko pertsonetan ohikoak diren jarduerak egiteko muga iraunkorra duten pertsonak; hau da, 4 urtetik behera izan eta beste umeen ohiko jolasetan aritzeko ezintasuna dutenak eta 5-17 urteko adingabeak, osasun-arrazoiak medio ikastetxe batera joateko ezintasuna dutenak edo hezkuntza-zentro berezi batera edo eskola berezietara joateko beharra dutenak. 2) *Mugatze partziala jarduera nagusian*: hor sartzen dira ohiko jardueretan, jarduera motari eta kopuruari begiratuta mugatuta dauden pertsonak. Katgoria honetan daude sartuta 4 urtetik behera izan eta osasunak parte har dezaketen jolasen kopuruan edo motan mugatzen dituen pertsonak eta 5-17 urtekoak, osasunak ikastetxera joatea mugatzen dienak. 3) *Beste jarduera batzuetan mugak dituztenak*: hor sartzen dira osasun-arazoengatik beste jarduera batzuetarako (jarduera sozialak, kirolakoak, etab.) mugak dituzten pertsonak.

¹⁰² Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

¹⁰³ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

Hezkuntza

Hezkuntzaren bidez, haur eta nerabeek nortasuna garatzen dute eta gaitasun pertsonal eta sozialak eskuratzen dituzte. Horiek, neurri batean, bizitza helduan aterako zaizkien aukerekin lotuta egongo dira, eta azken batean, hezkuntzak gizartearen garapenean eragin handia duela esan nahi du.

Eskola-biztanleria

EAEk unibertsitate aurreko ikasleen banaketa nahiko antzekoa du ikastetxe publiko eta pribatuetan, hau da, estatuan baino matrikulazio publikoen tasa askoz ere baxuagoak dira.

EAEn haur, lehen, bigarren eta batxilergoko hezkuntzako ikasleek ia antzeko banaketa dute ikastetxe pribatu eta publikoetan. 2013/2014 ikasturteko datuen arabera, maila horietako euskal ikasleen erdia (% 50,28) ikastetxe publikoetan matrikulatuta dago; tasa hori ia ehuneko puntu bakarrean areagotu da 2007/2008 ikasturtetik (% 48,92). EAE da ikastetxe publikoan ikasleen proportzio txikiena duen komunitate autonomoa, eta estatu mailako batez bestekoarekiko aldea nabarmena da. 2011/2012 ikasturtean ikastetxe mota horretan matrikulatutako ikasleak estatu mailan % 66,85 izan ziren¹⁰⁴.

Oreka hori, aldiz, ez da mantentzen atzerriko biztanleriaren kasuan; orduan eskolatze publikoa nagusitzen baita. Atzerriko hamar ikasletik zazpi inguru EAEko ikastetxe publiko batean matrikulatuta zeuden 2012/2013 ikasturtean, aurreko urteetan erregistratutakoaren antzeko datua, eta estatukoaren antzekoa, han ere % 83 da ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasle atzerritarren ehunekoa. Eskolako mailaren arabera nolabaiteko aldeak ikus daitezke, eta atzerriko ikasleen presentzia handiagoa da haur eta lehen hezkuntzan, aldiz, DBHn eta Batxilergoan jaitsi egiten da. Haur hezkuntzan, ikastetxe publikoetan matrikulatutako atzerriko ikasleen ehunekoa atzerriko ikasle guztiekiko % 81,45ekoa da; aldiz, Batxilergoan, adibidez, % 65,15ekoa¹⁰⁵.

Euskadiko ikastetxe publikoetan, jatorri atzerritarra duten ikasleen proportzioa ikasle guztiekiko 2012/2013 ikasturtean % 9,62koa izan zen lehen hezkuntzan. Tasa hori pixkanaka igo egin da (2005/2006 % 5,7 zen), eta Espainiako batez besteko tasaren azpitik dago, % 11,30ekoa¹⁰⁶ baita Espainian.

Euskadiko ikastetxe publikoetan, ikasle atzerritarrak guztizkoaren % 9,62 da lehen hezkuntzan.

Euskadiko ikasleen hamarretik ia zazpi D ereduan ikasten dute, duela hamarkada bat baino ia bikoitzak.

Euskadiko ikasleen hamarretik ia zazpi (% 68,29) D ereduan ikasten dute, hau da, ikasgai guztiak euskaraz egiten dituzte gaztelania eta literatura izan ezik, 2013/2014 ikasturteko datuen arabera, eta ehunekoa % 86,16koa da ikastetxe publikoak soilik aztertuz gero. Eredu horrek garrantzia hartu du urteekin, duela hamarkada bat D ereduan ikasten zuten ikasleak Euskadiko ikasleen erdia inguru ziren (% 52,09).¹⁰⁷

¹⁰⁴ Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. Unibertsitatekoak ez diren Irakaskuntzen Estatistika. 2012-2013ko datuen aurrerapena

¹⁰⁵ Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. Unibertsitatekoak ez diren Irakaskuntzen Estatistika. 2012-2013ko datuen aurrerapena

¹⁰⁶ Hezkuntza eta Kultura Ministerioa. Unibertsitatekoak ez diren Irakaskuntzen Estatistika. Datuen aurrerapena 2012-2013 eta 2005/2006 ikasturtea.

¹⁰⁷ Eustat. Irakaskuntzaren Estatistika. 2013/2014 ikasturtea. Datuen aurrerapena eta 2003/2004 ikasturtea.

Ia 14.000 ikaslek hezkuntza-behar bereziak dituzte.

Bestalde, azken urteetan behar bereziak¹⁰⁸ dituzten ikasleen kopuruak gora egin du eta 13.998 ikasle izan ziren 2013/2014 ikasturtean (10.469 2007/2008 ikasturtean) eta hamar ikaslelik lau inguru jokabide-nahasmendu larria duten edo ezintasuna duten ikasleak dira¹⁰⁹.

Horrekin lotuta, ikerketa-lan batzuek¹¹⁰ hezkuntza-behar bereziak dituzten adingabekoei hezkuntza-sistematik arreta emateko erantzuna indartu behar dela nabarmentzen dute, ikasle horiek baliabiderik ez dagoelako arautu gabeko irakaskuntza-baliabideetara bideratu behar izatea saihesteko. Unicefek 2013an argitaratutako *Haurren mundu mailako egoera* txostenak, beste txosten batzuek bezala, banakako laguntzak dituen eskola eta gizarte barneratzailearen alde egiten du, oztopoak kentzeko eta ezintasunen bat duen haurrentzat aurrera egiteko aukerak sor ditzaten familiei babesa emateko.


Hezkuntza-sisteman egotea

Nahitaezko hezkuntza amaitu ostean ikasketarik egiten ez duten herritarren bolumena ikusteko aukera eskaintzen dute eskola uzte goiztiarraren tasak eta 17 urterekin eskolatze garbiaren tasak. Ikasketak modu goiztiarrean uztearen eta sarrera baxuago, langabezi edo bazterkeria-arriskuaren artean dagoen harremanean dago horren garrantzia. Gainera, Europar Batasunak Europa 2020 Estrategiaren helburuetako bat markatu du uzte goiztiarra % 10etik behera murriztea.

17 urterekin eskolatzearen Euskadiko tasa ehuneko ehunetik gertu dago (% 98,6) eta estatu mailakoaren (% 83,6) eta Europakoaren (% 88,3) gainetik dago.

2009/2010 ikasturtean, EAEk 17 urterekin ehuneko ehunetik gertuko eskolatze-tasa zuen (% 98,6), Europako tasaren gainetik (% 88,3) eta estatu mailakoa baino nabarmen gorago (% 83,6). Hamar urte atzera eginda, bilakaera positiboa ikus daiteke, Euskadiko tasak zazpi puntu eta erdi inguru egin baitu gora (% 91,1 ingurukoa zen 1999/2000 ikasturtean)¹¹¹.

11. GRAFIKOA: 17 URTEREKIN ESKOLATZEAREN TASA GARBIA(%). EAE-KO 1999/2000-2009/2010 ikasturteak ETA ESPAINIAKO ETA EUROPAKO TASEN BILAKAERA.



Iturria: bertan egina, Espainian hezkuntzaren zifren datuak oinarri hartuta. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

2011ko datuen arabera, Euskadiko ikasleen % 13k ikasketak modu goiztiarrean uzten ditu¹¹², beraz, ez du nahitaezko hezkuntzaz gain beste titulartasunik¹¹³ eta mutilak dira gehien bat ikasketak modu goiztiarrean uzten dituztenak (% 13,5). Datu horrek adierazten du EAEko eskola-porrota.

¹⁰⁸ Ikastetxe arruntetan dauden ikasleak eta hezkuntza berezi espezifikoko ikasleak biltzen ditu. Hezkuntza-behar bereziek honako hauek biltzen dituzte: Entzumen-desgaitasuna, desgaitasun motorra, adimenekoa, ikusmenekoa, garapenaren nahasmendu orokortuak, jokabide-/pertsonalitate-nahasmendu larriak, pluridesgaitasuna, heltze-atzerapena, hizkuntzaren garapeneko nahasmenduak, ikaskuntza-nahasmenduak, irakas-hizkuntza ez ezagutzea, desabantaila sozioekonomikoaren egoera eta abar.

¹⁰⁹ Espresuki egindako eskaera. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

¹¹⁰ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Haur eta nerabeei buruzko diagnostikoa EAE. 2011ko maiatza.*

¹¹¹ Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako hezkuntzako zifrak. EAEko eta Espainiako datuek honako hauek biltzen dituzte: Erregimen Orokorreko irakaskuntzak, Arte Plastikoak eta Diseinua, Kirol Hezkuntza eta gainerako Arte Hezkuntzako goi mailako ikasketak. Europako datu berrienak 2008/2009 aldikoak dira.

¹¹² Uzte goiztiarraren datuak 18 eta 24 urte arteko gazteenak dira, gehienez ere DBHko lehen etapa egin dutenena.


¹¹³ ISEI-IVEI. Hezkuntza Adierazleen Euskadiko Sistema.

Bilakaera-datuek azken urteetan gure komunitate autonomoan gertatu diren aldakuntzak adierazten dituzte. Azken 15 urteotan tasa baxuena 2010ean gertatu zen (% 12,60ko uzte goiztiarra), aurreko urtean tasa altuena erregistratu ostean (% 16). Batez ere 2009tik gizonetzkoen uzte-tasan gertatu den jaitsiera da nabarmentzekoa, aldiz, emakumezkoena, pixkanaka igo egin da 2006tik, hala, sexuaren arabera aldeak nabarmen murriztu dira. Europa mailan ere beheranzko joera hori ikus daiteke eta gaur egun batez besteko tasa % 13,5koa da, Euskadikoaren oso antzekoa¹¹⁴.

Euskadiko ikasleen % 13k ikasketak modu goiztiarrean uzten ditu. 2010erako Europako helburua lortzeko gertuen dagoen komunitate autonomoa da.

Oraindik ez da lortu 2010erako Europa mailan ezarritako helburua, uzte goiztiarreko ehunekoak % 10eko ingurukoak izatea proposatu zenekoa. Gainera, 2020an, ehuneko hori mantentzea proposatu zen. Dena den, EAE da, Nafarroarekin batera, hori lortzetik gertuen dagoen komunitate autonomoa. Espainian erregistratutako batez bestekoa % 26,50koa da eta, Maltakoarekin batera, Europar Batasuneko 27 herrialdeetako altuena da¹¹⁵.

12. GRAFIKOA: ESKOLA UZTE GOIZTIARRAREN TASAREN BILAKERA. EAE GUZTIRA ETA SEXUAREN ARABERA 2000-2011 ETA ESPAINIA ETA EUROPA 2011.



Iturria: bertan egina, ISEI-IVEIren Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistemako datuen arabera

Nabarmentzekoa da azterketa batzuek¹¹⁶ nabarmendu dutela eskola-uzte goiztiarrean gizarte eta hezkuntza mailak duen eragina, hala, baliabide ekonomiko eta kultural gutxien duen ikasleak lehenago uzten du hezkuntza-sistema. Era berean, badirudi gurasoen hezkuntza maila ere faktore eragilea dela, hala, eskola-ibilbidea luzatu egiten da haien hezkuntza maila handiagoa denean.

Langabezia-tasa altuak direla eta, batez ere gazteen langabezia-tasak, gaur egungo krisi-egoeran esan daiteke ikasketak modu goiztiarrean uzten dituzten ikasleak langabeziara bideratuta daudela. 2013an 16 eta 19 urte arteko Euskadiko biztanleria aktiboaren langabezia-tasa % 66,52koa zen, bi urte lehenago erregistratutakoa baino 17 puntu gorago, eta 2008an erregistratutakoa baino 30 puntu gorago. EAEko tasa estatukoa bezain altua (han ere 2008arekiko igoera nabarmena izan da) ez den arren (% 74,19), bi tasen arteko aldea murriztu

¹¹⁴ ISEI-IVEI. Hezkuntza Adierazleen Euskadiko Sistema.

¹¹⁵ ISEI-IVEI. Hezkuntza Adierazleen Euskadiko Sistema.


¹¹⁶ SÍNDIC DE GREUGES. *Informe sobre la pobreza infantil a Catalunya*. Informe extraordinari. Bartzelona: SÍNDIC. EL DEFENSOR DE LES PERSONES, 2012.

egin da azken urteetan (2009an kolektibo horren langabezia-tasa Espainiakoa EAeko baino 20 puntu handiagoa zen arren, gaur egun zortzi puntuko aldea dago gutxi gorabehera)¹¹⁷.

Euskadiko 16 eta 19 urte arteko emakume aktiboen artean, 2013an langabezia-tasa % 77,28koa zen (% 76,45 Espainian), ia 35 puntu gehiago 2008an izandakoa baino, eta 2013rako gizonezkoen tasa baino 23 puntu gehiago. 2011n joera aldatu bazen ere, eta gizonezkoen tasa emakumezkoen gainetik jarri bazen ere, badirudi langabeziak berriz ere emakumeengan eragin handiagoa izan duela¹¹⁸.

16 eta 19 urte arteko biztanleria aktiboaren % 66,52 langabezian dago gaur egun. Langabeziak gehiago eragiten die neskei mutilei baino.

13. GRAFIKOA: 16 ETA 19 URTE ARTEKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN LANGABEZIA TASAREN BILAKAERA. EAE SEXUAREN ARABERA ETA ESPAINIA. 2005-2013



Iturria: bertan egina, EINeko Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuen arabera.

Azken batean, egoera aktiboan dagoen 16 eta 19 urte arteko hamar gaztetik hiruk enplegua lortzen du gaur egun (hamarretik bik emakumeen kasuan, eta hamarretik bostek gizonezkoen kasuan). Datu horiekin lotuta, garrantzitsua da txosten batzuk¹¹⁹ kontuan hartzea; izan ere, Europa mailan haurren txirotasun-indizeen eta biztanleria gazteenaren langabezia-tasa altuaren indizeen artean lotura ikusi dute. Hala, EAEn tasa horren mailak igotzeak alerta piztu beharko luke komunitate autonomoan haurren txirotasunari dagokionez izan dezakeen eragina dela eta.

¹¹⁷ EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

¹¹⁸ EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.

¹¹⁹ Aipatzekoa da *Informe sobre la pobreza infantil a Catalunya*. Informe extraordinari. Sindic. El Defensor de les Persones, 2012

2012/2013 ikasturtean, lehen hezkuntza ikasleen % 87,80k amaitu zuen amaitzeko adin teorikoan (12 ute). EAEk estatu mailako batez bestekoa gainditzen du eta tasa igo egiten da ikastetxe pribatuetan eta D ereduan ikasitakoaren artean.

Graduazioaren tasa gordinari esker, ikasturte jakin bat hura amaitzeko adin teorikoan gainditzen duten ikasleen ehunekoa ezagut dezakegu. Oro har, datuek erakusten dutenez, hezkuntza maila zenbat eta gorago egon, orduan eta baxuagoa da etapa jakin bat dagokien adinean amaitzen dutenen ehunekoa, eta neska eta mutilen arteko aldeak areagotu egiten da, neskek lortzen dituzte graduazio-tasa altuagoak. 2012/2013 ikasturtean, ikasleen % 87,80k amaitu zuen lehen hezkuntza horretarako adin teorikoan (12 urte), azken urteetan erregistratutakoaren antzeko datuak eta estatu mailakoak baino hobeak (% 83,9 2011-2012 ikasturtean¹²⁰). Ehunekoa altuagoa da ikastetxe pribatuetan ikasten dutenen artean (% 91,70) eta D ereduan ikasten dutenen artean¹²¹ (% 89,40).

Garapen egokiarekin lotura duten adierazleek, hau da, dagozkion ikasturteko ikasgai guztiak gainditzeak, gaitasunen garapenaren, errendimenduaren eta abarren ikuspegitik hurbiltzen gaituzte errealitatera.

Euskadiko ikasleen % 81,70ek behar bezala egiten du aurrera lehen hezkuntza amaitzean, eta % 66,80k, bigarren hezkuntzaren kasuan. Neskek eta D ereduan ikasten dutenek lortzen dituzte gehien bat etapa bakoitzean dagozkien ikasgai guztiak gainditzea.

2011/2012 ikasturtean, hamar ikasletik zortzik (% 81,70) behar bezala egiten zuen aurrera lehen hezkuntza amaitzean, horrek esan nahi du dagozkien ikasketa-eremu guztiak gainditzen zituztela, eta azken hamarkadan ez da aldakuntza handirik ikusi¹²². Maila horretan aurrera egiten duten mutilen ehunekoa (% 78,30) neskena baino baxuagoa da eta emaitzak hobeak dira D ereduan¹²³ ikasten dutenen artean (% 83,80k behar bezala egiten du aurrera).

DBH amaitzean behar bezala aurrera egiten duten ikasleen ehunekoa jaitxi egiten da, DBHko Euskadiko ikasleen % 66,80 baita ikasgai guztiak gainditzen dituen¹²⁴. Kasu honetan ere neskek aurrerapen-indize hobeak dituzte, D ereduan¹²⁵ ikasten dutenen artean gertatzen den moduan.

¹²⁰ Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako hezkuntzako zifrak. Estatistikak eta adierazleak. 2014ko edizioa (2011-2012 ikasturtea)

¹²¹ D ereduak: irakasgai guztiak euskaraz, gaztelania eta gaztelaniazko literatura izan ezik.

¹²² Ikasketa arloa: natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen ezaguera; arte-hezkuntza; gorputz-hezkuntza; gaztelania eta literatura; euskara eta literatura; atzerriko hizkuntzak eta matematika.

¹²³ D ereduak: irakasgai guztiak euskaraz, gaztelania eta gaztelaniazko literatura izan ezik.

¹²⁴ natura-zientziak, gizarte-zientziak, geografia eta historia, gorputz-hezkuntza, plastika eta ikus-hezkuntza, gaztelania eta literatura, euskara eta literatura, atzerriko hizkuntza, matematika, musika, oinarriko teknologia, atzerriko aukerako 2. hizkuntza, informatika aukerakoa, erlijioa aukerakoa.

¹²⁵ Eustat. Eskola Jardueraren Estatistika.

Horrez gain, ikasleen errendimendurekin lotuta, PISA txosten¹²⁶ ezaguneko datuak ere aipatu behar dira; izan ere, gaitasun gako ugari ebaluatuta, herrialde ugarietan dauden hezkuntza-emaizak aztertzen ditu (zientziak, matematika eta irakurketa) 15 urteko ikasleen artean.


EAEk ELGA eta Espainiaren batez bestekoak baino emaitza hobek lortu ditu 2012ko PISA txostenean ebaluatutako hiru gaitasunetan; orain arte gure ikasleek lortutako emaitza onenak izan dira.

Txosten horren arabera, Euskadiko ikasleen errendimendua maila optimoetan dagoela dirudi. 2012an lehen aldiz EAEk ELGAko batez bestekoak baino emaitza hobek lortu ditu ebaluatutako hiru gaitasunetan. Euskadiko ikasleek bai matematikan lortutako emaitzak, bai zientzietan lortutakoak esanguratsuak dira ELGAko eta Espainiako batez bestekoarekin alderatuta. Gainera, irakurmenean eta zientzietan, ikasleen orain arte lortutako emaitza onenak izan dira.

Sexuaren arabera, alde garrantzitsuak nabari dira oraindik ere. Mutilak emaitza hobek dituzte zientzietan eta matematikan, aldiz, irakurmena nabarmen hobea da nesken artean.

Oro har, Euskadiko ikasleen artean maila ertainak dira nagusi. Murrizta da bikaintasuneko maila gorenetan dauden ikasleen kopurua, baina baita maila baxuetan edo desegokietan dauden ikasleen ehunekoak ere. Maila baxuetan dauden ikasleen tasak murriztu egin dira aztertutako hiru gaitasunetan azken urteetan, eta nabarmen baxuagoa da ELGAN eta Espainian erregistratutakoa baino. 2020rako Europako helburuak ezartzen du maila baxuetako ikasleen ehunekoak ez duela gaindituko % 15, beraz, EAEk dagoeneko lortu du helburu hori zientzietan eta irakurmenean, eta benetan gertu dago matematikan lortzeko.

14. GRAFIKOA. ZIENTZIETAKO, MATEMATIKAKO ETA IRAKURMENEKO PISA PROBAN ERRENDIMENDU MAILA BAXUAN DAUDEN 15 URTEKO IKASLEEN EHUNEKOA. EAE 2006 ETA 2012 ETA ELGA 2012



Iturria: Bertan egina, Euskadiko PISA 2012 txosteneko datuak oinarri hartuta. Emaitzen txostena eta aldagaien analisisa. 2014ko otsaila, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. ISEI-IVEI.

Gainera, azken PISA txostenek emaitzetan eragiten duten hainbat eragile adierazi dituzte, eta garrantzitsua da horiei jarraipena egitea. Nabarmenezkoak dira: belaunaldien arteko transmisioa (amaren edo aitaren hezkuntza maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobea da emaitza); familien eta ikastetxeen ingurune soziala, ekonomikoa eta kulturala (ikastetxe pribatuak eta D ereduko ikasleak emaitza hobek lortzen dituzte) edo jatorria (ikasle atzeritarrek emaitza okerragoak izaten dituzte).

¹²⁶ Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa (PISA) Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGA) sustatutako ebaluazio-proposamena da. Horrelako prospekzio- eta konparazio-azterketak hiru urtean behin egiten dira; bertan, kontinente guztietako 70 herrialdek baino gehiagok parte hartzen dute eta haren helburu nagusia da 15 urteko ikasleak bizitzarako duten prestaketa mailari buruzko informazioa jasotzea. Ezagutzak erabiltzeko eta helduen bizitzako erronkei aurre egiteko gazteek duten prestakuntza, trebakuntza eta gaitasunari buruzko informazioa lortzea da helburua. Hiru gaitasun giltzarri aztertzen dira: zientzia, matematika eta irakurketa.

ZIENTZIAK

Euskadiko ikasleek 2012ko **zientzietako** proban 506 puntuko batez bestekoa lortu zuten. Emaitza ELGAko (501) eta Espainiako (496) batez bestekoa baino altuagoa da, baina ez dago alde nabarmenik. EAE lehen 20 herrialdeen artean dago, Belgika, Austria, Txekiar Errepublika, Aragoi, Kantabria edo Errioxaren antzeko datuak ditu, besteak beste.

Bai neskek, bai mutilek, nabarmen hobetu dute PISA 2009 probarekiko (11 puntu gehiago) eta orain arte lortutako emaitza onena izan dute, lehen aldiz, ELGAko batez bestekoa gaindituta. Hala ere, mutilek emaitza hobeak dituzte oraindik (510 puntu mutilen kasuan eta 501 nesken kasuan).

506 puntuko puntuazioak Euskadiko ikasleak 3. mailan¹²⁷ kokatzen ditu sei mailako ranking batean (1. maila baxuena eta 6. maila altuena). Errendimendu maila baxuenean zeuden ikasleek zientzietako proban guztizkoaren % 11,80 ziren, ELGAko batez bestekoa baino ehuneko baxuagoa, % 17,80koa baita. 2006tik gaur egunera arte lau puntutan murriztu da maila baxuetako ikasleen ehuneko (% 15,70 2006an).

MATEMATIKA

Matematikan Euskadiko ikasleen errendimenduaren batez besteko puntuazioa 505 puntukoa da; horrek EAE ELGAko herrialdeetako batez bestekoaren gainetik kokatzen du nabarmen (494 puntu), baita estatuko batez bestekoaren gainetik ere (484 puntu). EAE rankingeko lehen hamar herrialdeen artean egotetik gertu dago, Austria, Australia, Eslovenia edo Irlandakoan antzeko puntuazioarekin, eta hirugarren lekua du komunitateen rankingean Nafarroaren eta Gaztela eta Leonen atzetik.

Azken urteetan lortutako puntuazio ugariak izanik ere, 2012ko datuek ez dute alde nabarmenik erakusten orain arte ikusten ari zen joerari dagokionez. Aldiz, nabarmena da sexuaren araberako aldea, mutilek (512 puntu) neskek baino 14 puntu gehiagoko puntuazioa baitute.

Euskadiko ikasleak sei mailako rankinean 3. mailan daude¹²⁸ (1. maila baxuena eta 6. maila altuena). Ikasleen % 15,50 matematikako proban errendimendu maila desegokietan dago, ELGAko eta Espainiako emaitzak baino ehuneko 10 baxuago. Maila baxuetako ikasleen ehuneko jaitsi egin da 2006rekiko (% 16,90), baina gorakada txikia gertatu da 2009arekiko (% 0,6ko igoera).

IRAKURMENA

15 urteko Euskadiko ikasleek PISA proban **irakurmenean** lortutako batez besteko errendimenduaren puntuazioa (498) ELGAko herrialdeen batez bestekoan dago (496), alde nabarmenik gabe, Frantzia, Norvegia, Erresuma Batua, AEB edo Danimarkaren moduko herrialdeekin batera. Hala ere, EAEk arlo horretan hobetu egin du eta irakurmenean lortutako emaitza hobetu egin du, 2009an baino 4 puntu gehiago.

Neskek irakurmenean mutilek baino emaitza hobeak lortu dituzte. 30 puntu gehiago lortuta (483) eta aldea nabarmena da.

Sei mailen rankingean (1. maila baxuena eta 6. maila altuena) EAE 3. mailan¹²⁹ dago. EAEko 15 urteko gazteen % 14,40 irakurmeneko PISA proban maila baxuetan dago, ELGAko herrialdeetako batez bestekoaren kasuan, % 17. 2006tik errendimendu maila baxuetako ehunekoan jaitsiera izan da (% 17,70 2006an).

¹²⁷ *Ikasleek erraz identifikatzen dituzte hainbat testuingurutan argi eta garbi azalduko gai zientifikoak; fenomenoak azaltzeko gertakariak eta ezagutza hautatzen dituzte; ikerketako estrategien eredu arruntak aplikatzen dituzte; hainbat diziplinako kontzeptu zientifikoak interpretatu eta erabiltzen dituzte; zuzenean aplikatzen dituzte; gertakariak kontuan izanda azalpen laburrak egin ditzakete eta ezagutza zientifikoan oinarritutako erabakiak har ditzakete. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. ISEI-IVEI. PISA 2012 Euskadi. Emaitzen txostena eta aldagaien analisisa. 2014ko otsaila.*

¹²⁸ *Ikasleek argi eta garbi azalduko prozedurak exekuta ditzakete, bigarren mailako erabakiak hartzea eskatzen dutenak barne; problema arruntak ebazteko estrategiak hautatu eta aplikatzen dituzte; hainbat informazio-iturritan oinarritutako adierazpenak interpretatu eta erabiltzeko eta horietatik zuzenean arrazoitzeko gai dira, eta interpretazioak, emaitzak eta arrazoiketaz azalduz idatzizko txosten laburrak egiteko gai dira. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. ISEI-IVEI. PISA 2012 Euskadi. Emaitzen txostena eta aldagaien analisisa. 2014ko otsaila*

¹²⁹ *Irakurleak badaki hainbat irizpidetara egokitu beharreko informazio zatien arteko lotura lokalizatzen eta, kasu batzuetan, identifikatzen. Interpretazio-lan horiek egiteko testu bateko hainbat zati integratu behar dira ideia nagusia identifikatzeko, lotura ulertzeko edo esaldi edo hitz baten esanahia ezartzeko. Kontuan izan behar dira alderatzeko, kontrastatzeko edo kategorizatzeke ezaugarri ugari. Eskatutako informazioak ez du nabarmendutako lekurik izaten edo informazio asko daude topatuta; edo testuan beste oztopo batzuk daude, esaterako, aurrez ikusitako kontrako ideiak edo modu negatiboan adierazitakoak. Gogoetako zereginak konexio edo alderaketak egitea eskatzen du, azalpenak ematea edo testu baten alderdia baloratzea. Ariketa horietako batzuk ohiko eta eguneroko ezagutzarekin lotuta testuaren ulermen zehatza egiaztatzea eskatzen dute. Beste ariketa batzuek ez dute testua zehatz ulertzea eskatzen, baina irakurtzen duenak hain ohikoak ez diren ezagutzak erabili behar izaten ditu. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. ISEI-IVEI. PISA 2012 Euskadi. Emaitzen txostena eta aldagaien analisisa. 2014ko otsaila.*

Ez dira ugariak gazteek gehien eragiten dieten eskolako alderdiekiko duten iritziari, balorazioari eta asebetetzeari dagokionez informazioa jasoko duten aldizkako azterketak. Hori dela eta, garrantzi berezia dute kolektiboari ahotsa emateko aukera eskaintzen duten txostenetan jasotako datuek, esaterako, honelakoetan: Health Behaviour in School aged Children-HBSC¹³⁰, eskolako gazteen jokabide osasungarriei buruzko azterketa egiten duena.

2006an erregistratutako datuen arabera, Euskadiko ikasleak, oro har, gustura daude eskolarekin; hain zuzen ere 11 eta 17 urte arteko gazteen % 85k aitortzen du gustatzen zaiola. Sexuaren eta adinaren arabera daude alde nabarmenenak. Eskolarekin gustura ez egotearen ehunekoa handiagoa da mutilen artean (% 21i ez zaio batere gustatzen eskola, aldiz, nesken artean ehunekoa % 8ra mugatzen da), eta handitu egiten da urteekin (11 eta 12 urte arteko adingabekoen % 7,80k adierazi du ez zaiola batere gustatzen eskola; aldiz, 15 eta 16 urte artekoen artean, gustura ez egotearen tasa % 21ekoa da)¹³¹.

Oro har, Euskadiko ikasleak gustura daude eskolarekin, baina 11 eta 17 urte arteko hamar ikasletik bi oso itota sentitzen dira eskolako lanarekin.

11 eta 17 urte arteko hamar adingabekotik bi oso itota sentitzen dira eskolako lanarekin. Pertzepzio hori ugariagoa da mutilen artean (% 26) nesken artean baino (% 16) eta gehiago nabarmentzen da ikastetxe pribatuetan (ikastetxe pribatuetako ikasleen % 23,80 oso itota sentitzen da; aldiz, ikastetxe publikoetako artean, % 18,50)¹³².

Ikasleek sentitzen dute irakasleek entzuten dietela eta kontuan hartzen dituztela (11 eta 14 urte arteko hamar ikasletik bederatzik uste dute hori, 2011n jasotako datuen arabera¹³³), baina adina zenbat eta handiagoa izan, badirudi orduan eta txikiagoa dela iritzia eman ahal izatearen sentimendua. 2006ko datuen arabera, 14 eta 17 urte arteko hamar adingabekotik zazpi uste dute ez dutela ahotsik ikastetxean zer jarduera egin erabakitzeko¹³⁴. Ehuneko hori txikiagoa da ikastetxe pribatuetako eta landa-ingurunean dauden ikastetxeetako ikasleen artean.

Gizarteratze-arazoek gehiago eragiten diete mutilei eta ikasle atzerritarrei. 6 eta 16 urte arteko Euskadiko ikasleen % 1,80k gizarteratzeko arazoren bat du.

Berdinen arteko harremanekin nahiz ikastetxearekin duten asebetetzea handia den arren, badira desberdintasunekin lotutako gatazka batzuk (desberdintasun fisikoak, jatorriarekin lotutakoak eta abar); dena den, badirudi gizarteratze-arazoak murrizten ari direla. 2010ean, 6 eta 16 urte arteko Euskadiko ikasleen % 1,80k gizarteratze-arazoren bat izan zuen eskolan; aldiz, 2006an % 3koa izan zen tasa hori. Gizarteratze-arazoak handiagoak dira mutilen artean (% 3,30), baina desberdintasun handiena oraindik ere nazionalitateak markatzen du; izan ere, gizarteratze-arazoak dituzten eta nazionalak ez diren adingabekoen ehunekoa % 4,10ekoa da. Dena den, 2006an kolektibo horretarako erregistratutako tasarekiko murriztu egin da kopurua (% 7,7)¹³⁵.

¹³⁰ Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) bultzatutako proiektua da, mendebaldeko 40 herrialdek baino gehiagok parte hartzen dute bertan, eta herrialde ugariak nerabezaroen bizi-estiloen ikuspegi orokorra lortzea ahalbidetzen du. 2006 arteko komunitateka zehaztutako datuak eskaintzen zituen.

¹³¹ Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹³² Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹³³ Unicef. *Bizitza-kalitatea eta haurren ongizate subjektiboa Espainian, zerk eragiten dio DBHko 1. mailako Espainiako haurren ongizateari? 2012.*

¹³⁴ Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriei buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹³⁵ Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila. *Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. 2010.*

Berdinen arteko tratu txarren egoerarekin lotuta, datuek adierazten dute 2008tik lehen hezkuntzan eta DBHn kasuen kopuruak pixkanaka gora egin duela, eta maila baxuenetan daude tratu txarren ehuneko altuenak. Dena den, txosten espezializatu batzuen arabera, badirudi arlo horretan ikastetxeek kontzientzia, prestakuntza eta informazio handiagoa eskaintzeak eragin dezakeela lehen kontuan hartzen ez ziren jokabide batzuk tratu txarren jokabide gisa aitortzeko, eta horrek kasuen kopurua handitzea ekarri du, baina horrek ez du nahitaez esan nahi kasu errealean bolumenta aurreko urteetako baino handiagoa denik¹³⁶.

Hamar ikasletik bik eskolan nolabaiteko tratu txarra izan dutela esan dute. Tratu txarren presentzia murriztu egiten da adinak gora egin ahala eta harreman modu berriak sortu ahala.

2012an, lehen hezkuntzako ikasleen % 21ek inguruk dio eskolan sarritan edo beti tratu txarrak jaso izan dituela (ahozko tratu txarra, soziala, fisikoa, sexuala, jabetzekiko eraso edo ciberbullying-a); hau da, 2009an baino % 4 gehiago. DBHn tratu txarren indizea % 14koa da (% 2,8 gehiago 2009an baino)¹³⁷. Tratu txarren presentziak badirudi lotura duela ikasleen adinarekin eta gatazkak konpontzeko estrategia berrien garapenarekin, beraz, adinak eta hezkuntza mailak gora egin ahala, erasozko jokabideak murriztu egiten dira eta ikastetxeetatik sustatuta egon daitezkeen harreman modu berriak sortzen dira.

Ahozko tratu txarra da eragin handiena izaten ari den jokabide mota eta tratu txarra jasaten duten ikasle gehienak tratu txar mota bakarraren biktima dira. Tratu txarren kopurua pixka bat handiagoa da mutilen artean eta presentzia handiagoa du ikasleak atzerritarrak direnean edo teoriar dagokion mailan egon ordez beste batean eskolatuta dagoenean. Eragina handiagoa da, horrez gain, familiako ikasketen mailak bigarren hezkuntza gaingaitzen ez duen ikasleen artean ere.

2008an argitaratutako Arartekoaren *Adingabekoei balioak transmititzea*¹³⁸ Ezohiko txostenak hainbat antzekotasun identifikatzen ditu gurasoek seme-alabekin erabilitako aurre egiteko estrategien eta haiek parekideekin dituzten harreman-zailtasunetan gatazkak konpontzeko duten gaitasunaren artean. Gainera, *Hurbilketa haurren eta nerabeen beharretara*¹³⁹ txostenak ohartarazten du irakasleak eta gurasoak kezkatuta daudela ikasleek gabezia dutelako gatazkak kudeatzeko gaitasunetan eta horrek gehiegizko babesarekin loturaren bat izan dezakeela, norberaren ekintzekiko erantzukizuna izatea eragozten baitu.

Inbertsioa hezkuntzan

Araututako ikastetxeetan egindako gastua, guztira, eta batez beste ikasleko egindako gastua etengabe hazi da azken hamarkadan, baina beharrezkotzat jotzen da datozen urteetan jarraipena egitea, egungo krisiaren ondorio posibleak egiaztatu ahal izateko. Eskuragarri ditugun datuen arabera, 2009an ikastetxe publikoetan ikasleko batez besteko gastua 7.000 euro ingurukoa izan zen, ikastetxe pribatuetakoa baino gastu handiagoa (5.500 euro). 2007an egindako inbertsioarekiko, ikasleko gastua % 15 inguru handitu zen, hori gutxi gorabehera ikasleko 1.100 euro gehiagoko igoera da eta 2.000 euroko igoera 2003koarekin¹⁴⁰ alderatuta.

¹³⁶ ISEI-IVEI. Eusko Jaurlaritzako Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. *Berdinen arteko tratu txarra*. 2012.


¹³⁷ ISEI-IVEI. Eusko Jaurlaritzako Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. *Berdinen arteko tratu txarra*. 2012.

¹³⁸ ARARTEKOA. *Adingabekoei balioak transmititzea*. Arartekoaren ezohiko txostena. 2008.

¹³⁹ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*. 2010eko uztaia.

¹⁴⁰ Eustat. Irakaskuntza Publikoaren Gastuaren eta Finantzaketaren Estatistika. 2009

15. GRAFIKOA: IKASTETXE PUBLIKOETAN IKASLEKO HEZKUNTZAN EGINDAKO BATEZ BESTEKO GASTUAREN BILAKERA (euroak ikasleko). EAE 1995-2009 ETA EUROPA ETA ESPAINIA 2010 eta 2011



Iturria: bertan egina Eustateko 2009ko Irakaskuntza Publikoaren Gastuaren eta Finantzaketaren Estatistika eragiketaren datuak oinarri hartuta. Espainiako eta Europako datuak Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarenak dira. Espainiako hezkuntzako zifrak. 2011-2012 ikasturtea (2014ko edizioa). Espainiako datuak 2011koak dira eta Europakoak 2010ekoak, eta ikastetxe publiko eta pribatuak biltzen ditu (Nazioarteko Lankidetzat atala).

Irakasle bakoitzeko dagoen ikasle ratioa ia ez da aldatu azken hamarkadan oinarrizko hezkuntzan (haur-hezkuntza eta lehen-hezkuntza). 2011/2012 ikasturtean oinarrizko hezkuntzan irakasle bakoitzeko 12 ikasle inguru zeuden, duela hamar urte zegoen antzeko indizea, baina ikastetxe publiko eta pribatuaren arteko aldea nabarmena da, ikastetxe pribatuaren irakasle bakoitzeko ia 16 ikasle baitaude. Kopurua zortzi edo bederatzik ikasletara murrizten da bigarren hezkuntzan eta ikastetxe pribatu eta publikoaren arteko aldea ez da hain nabarmena (10 ikastetxe pribatuaren kasuan). Kasu honetan, tasa duela hamar urtekoa baino baxuagoa da (11 ikasle)¹⁴¹.

Ikasleko batez besteko gastua pixkanaka handitu egin da 2009ra arte, baina garrantzitsua izango da datu horien hurrengo eguneraketak berrikustea, krisiak eraginik baduen edo ez ikusteko.

¹⁴¹ Eustat. Irakaskuntzaren Estatistika. 2011-2012

Ongizate materiala

Errenta

Haurrak edo nerabeak bizi diren etxe multzoetarako datu zehatzik askotan izaten ez den arren, merezi du Euskadiko etxe guztietako egungo egoeraren gainean pentsatzen jartzea; izan ere, adingabeak dauden etxeetan gertatuko dena ere ildo beretik joango da seguruenik.

Euskadiko etxeetako urteko errentak 2.000 euro inguru egin du behera 2008 eta 2009 artean, eta kide guztiak etxean dauden etxeen ehunekoa % 1,20tik (krisiaren hasieran) % 5,78ra iritsi da (2013an).

Euskadiko etxeetako errentaren batez besteko maila 2012an 29.108 euro garbikoa zen etxe bakoitzean (gutxi gorabehera estatu mailako batez bestekoa baino 5.000 euro handiagoa); dena den, krisiak etxeetako errentaren batez besteko maila jaitea eragin du, 2008an 31.197 eurokoa baitzen^{142 143}.

Gainera, Euskadin, langabezia-tasak mailarik gorenena lortu du azken hamarkadari dagokionez. Biztanleria aktiboaren % 15,83 langabezian zegoen 2013an, hain zuzen ere, 2008an langabezian zeuden pertsonen bikoitza (% 6,45); hala ere, Estatuko langabezia-tasatik urrun dago oraindik (% 26,36)¹⁴⁴.

Kide aktibo guztiak langabezian dituzten Euskadiko familien proportzioa ugartzen joan da. 2008an¹⁴⁵ familien % 1,20k kide guztiak langabezian zituen, baina 2013ko hirugarren hiruhilekoan % 5,78 dira (50.000 familia inguru) kide guztiak langabezian dituzten familiak¹⁴⁶. Ildo horretan, haurrak eta nerabeak dauden etxeetako datu berrienak krisia baino lehenagokoak (2004) dira. Orduan, seme-alabak zituzten etxeen % 4,50ek zituzten pertsona aktibo guztiak langabezian. Orotara hartuta, Euskadiko etxe guztien antzeko ehunekoa da¹⁴⁷. Badirudi pertsona guztiak langabezian dauden eta adingabeak dituzten etxe kopuruak gora egitea EAEko etxe guztiekiko proportzionala izan dela.

Gogoan izan behar da langabezia-egoerak txirotasun-arriskuarekin oso lotuta daudela. Dagoeneko aipatu dugun txirotasunari buruzko¹⁴⁸ inkestak erakusten dute txirotasun-arriskuak gora egiten duela etxeko pertsona nagusia langabezian dagoenean¹⁴⁹.

Txirotasuna

Gizarte osoak ez du krisiaren eragina berdin jasaten; izan ere, talde ahulenen artean efektu handiagoa du, haurtzarora eta nerabezaroaren kasuan, esate baterako. Haurrak dira egungo krisiak gehien kaltetu dituen taldeetako bat; izan ere, krisiaren eraginez txirotasunak gora egin du. Inpaktu hori ikustea ez da beti erraza izaten eta haurren orainari ez ezik, etorkizunari ere eragiten dio.

¹⁴² EIN. *Bizitza Baldintzen Inkesta. 2012*

¹⁴³ 2013ko datuak behin-behinekoak dira. 2004tik Bizi-baldintzen Inkestak emandako datuak aztertu zituen EINek 2013ko azaroaren 20an 2011ko Erroldako populazioak erabiliz eta adierazleen kalkuluak hobetuz. Horregatik dute datuek nolabaiteko aldakortasuna eta baliteke informazio berdina eskaintzen duten beste argitalpen edo txosten batzuetako datuekin bat ez etortzea.

¹⁴⁴ EIN. Biztanleria Aktiboaren Inkesta 2012.

¹⁴⁵ 2008ko III. Hiruhilekoari dagozkion datuak.

¹⁴⁶ Eustat. Herritarren inkesta jarduerarekin lotuta.

¹⁴⁷ Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxeetako inkesta 2008

¹⁴⁸ Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txirotasunaren eta Gizarte Gaien Inkesta. 2012

¹⁴⁹ Gehiago sakontzeko, kontsultatu Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta 2012.

*Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2012ko Inkestaren*¹⁵⁰ datuen bidez, sarrera maila kontuan izanda txirotasun-egoerak izateko arriskuan sakon daiteke. Txosten horretatik ondoriozta daiteke 15 urtez beheko 35.000 adingabeko (15 urte baino gutxiagoko herritarren % 11,7) oinarrizko beharrak estali ezin izateko arriskuan dauden etxeetan bizi direla, krisia hasi zenean (2008) baino % 2,6 adingabeko gehiago, 2004ko datuen bikoitza (% 5,3) eta egoera horretan dagoen Euskadiko biztanleriaren ehunekoaren gainera (% 7,3).

15 urtez azpiko 35.025 haur oinarrizko beharrak estali ezin izateko arriskuan dauden etxeetan (mantentzeko txirotasun arriskua) bizi dira.

15 urte baino gutxiagoko 66.458 haur (taldearen % 22,2) bizi dira gutxieneko ongizate mailari eutsi ezin izateko arrisku-egoeran.

EAE 15 urtez azpiko 66.458 haur daude (% 22,2) gutxieneko ongizate maila mantendu ezin izateko arriskuan (baliabide ekonomikoa nahikorik ez izatea, epe laburrean, gizarte jakin batean esperotako gutxieneko erosotasun eta ongizate mailak mantentzeko beharrezkotzat hartzen diren ohiko gastuei aurre egiteko). 2008ko antzeko ehunekoa, baina 2012ko herritarren batez bestekoaren gainera (% 19,90).

15 urte baino gutxiagoko biztanleen % 9,5 benetako mantentzeko txirotasun egoeran dago 2012an (2008an datua % 7,4koa zen).

Txirotasun-egoera izateko arriskuaz ohartzen duten adierazleez gain, garrantzitsua da benetako txirotasun-egoeran dauden herritarren datuak jakitea.

2008tik 2012ra % 7,4tik % 9,5era handitu da benetako mantentzeko txirotasuneko egoeran¹⁵¹ dauden 15 urtez azpiko herritarren ehunekoa, hau da, oinarrizko beharrak asetzeko nahikoa sarrera ez izateaz gain, egoera horri aurre egiteko beste ondasunik ere ez dute.

15 urtez azpiko adingabekoen % 14,1ek benetako ongizate absentzia jasan du 2012an (2008an, datua % 13koa izan zen).


Benetako ongizatearen¹⁵² absentziak ere gora egin du. 2008an % 13koa zen datua eta 2012an % 14,1era iritsi da gutxieneko ongizate mailak mantentzeko ohiko gastuei aurre egiteko benetako ezintasuna jasaten duten 15 urtez azpiko adingabeen ehunekoa.

¹⁵⁰ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. 2012ko Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta

¹⁵¹ **Mantentzeko-txirotasunak** honako egoera honi egiten dio erreferentzia: behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea epe laburrean oinarrizko beharrak asetzeko, batez ere elikadurari, etxebizitzari, arropari eta oinetakoei lotuta. Txirotasun-arriskuan daude, erabili dugun erreferentzia-aldian oinarrizko behar horiek asetzeko adierazitako mugetara iristen ez diren diru-sarrerak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak.

¹⁵² **Ongizaterik ez izateari** lotutako arazoek erreferentzia egiten diete gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate- eta erosotasun-baldintzei eusteko beharrezkoak diren ohiko gastuei epe laburrean aurre egiteko behar besteko baliabide ekonomikorik ez dagoen egoerei. Praktikan aukera ematen dute, gutxieneko baldintzetan behintzat, gizarte horretan ohikoak diren bizimoduan, ohituretan eta jardueretan parte hartzeko. Ongizaterik ez izateko arriskuan daude erreferentzia-aldi jakin batean EAEko etxeek batez beste bereizgarri duten gutxieneko esperantza soziala osatzen duten ongizate mailara iristeko mugen azpiko diru-sarrerak dituzten pertsonak, familiak edo etxeak.

16. GRAFIKOA: MANTENU-TXIROTASUN ARRISKUAN, ONGIZATE FALTAN, BENETAKO MANTENU-TXIROTASUN EGOERAN ETA BENETAKO ONGIZATE FALTAKO TXIROTASUNEAN DAUDEN ADINGABEKOEN (15 URTE BAINO GUTXIAGOKOAK) PROPORTZIOA . EAE 2004-2012



Iturria: bertan egina, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaien Saileko 2012ko Txirotasun eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren datuetatik abiatuta.

Txirotasunari buruzko azken azterketen arabera¹⁵³, 14 urte baino gutxiagoko adingaberen bat bizi den etxeetan txirotasun-arriskua izateko arrisku handiagoa dute. Gainera, etxean zenbat eta adingabeko gehiago bizi, txirotasun-arriskua orduan eta handiagoa izango da. Hauek egoera ahulean daudela esan genezake: guraso bakarreko familiak (batez ere, emakumeak buruan daudenak), atzerriko pertsona bat buruan dutenak eta euskarri den pertsonak kualifikazio baxua duen etxeak edo 35 urte baino gutxiago dituen kasuan.

Badirudi EAEn Sarreraren Berme Sistema eta Gizarte Zerbitzuen Sistema finkatzeak egungo krisiaren zenbait ondorio arindu ditzakeela baliabiderik ez dutenei gizarteratzen lagunduta eta bizitzako oinarriko beharrei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izateko eskubide subjektiboaren aitortuta. Babes-sistemari esker, EAEn hurren txirotasun-tasei eutsi egin zaie, betiere, Estatu edo Europa mailan erregistratutako mailalara iristea saihestuz.

2012an, 16 urtez azpiko seme-alabak dituzten 16.000 familia inguruk jaso zuten Sarrerak Bermatzeko Errenta (errenta hori jasotzen duten etxe guztien % 26,7). 16 urtez azpiko ia 24.370 haurrek jaso zituzten (adin horretako biztanleriaren % 8 inguruk) laguntza horiek¹⁵⁴.

16 urtez azpiko seme-alabak zituzten 16.000 familia inguruk jaso zituzten Sarrerak Bermatzeko Errentak 2012an.

¹⁵³ Nabarmendu beharrekoa da *Krisiaren eragina haurrengan: Euskadiko errealitatea*, Arartekoak 2013an argitaratuta.

¹⁵⁴ Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Gaietako Behatokia. Haur eta Nerabeen Behatokia. *Haurren txirotasuna Euskadin*. 2013ko maiatza.

Euskadiko etxeen % 24 inguruk ezin dio ustekabeko gastuari aurre egin. Ehuneko horrek hilaren amaierara iristeko zailtasunak ditu.

Euskadiko familiek, oinarrizko beharrak estaltzera zuzenean lotuta ez baldin badaude ere, familiako ongizatea argi eta garbi kaltetuko duen egoerari egin beharko die aurre. 2013ko datuen arabera, Euskadiko etxeen % 24,2k ez du gaitasunik ustekabeko gastuei aurre egiteko. Ehuneko hori 2008an erregistratutakoa baino sei puntu eta erdi handiagoa da (% 17,1), nahiz eta, estatu mailako batez bestekoaren azpitik dagoen. Izan ere, estatu mailan, hamar familiatik lauk ez dute gaitasunik ustekabearen sortutako gastuei aurre egiteko¹⁵⁵

¹⁵⁶

Beste urteetan baino etxe gehiagok dituzte hilaren amaierara iristeko zailtasunak. Euskadiko etxeen % 24,7k hilaren amaierara iristeko zailtasunak edo zailtasun handiak dituzte¹⁵⁷ (zailtasun hori 2008an % 18,1ek zuten, eta 2004an, % 19,6k)¹⁵⁸. Estatu mailan, hilaren amaierara iristeko zailtasunak etxeen % 36,6ri eragiten dio.

Modu osagarrian, adierazi behar da 2008an, mendeko seme-alabak dituzten etxeen % 34,54k ez zuela nahikoa diru-sarrerara ezohiko gastuei aurre egiteko, eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko etxeen kasuan egoerak hamarretik lauri eragiten zion.

Etxea

Etxearekin lotutako gastuak ordaintzean atzerapenak edo ez-ordaintze arazoak dituzten etxeetan bizi diren pertsonen ehunekoa 2008an % 2,9koa izatetik 2012an % 5,9koa izatera pasatu zen.

Gaur egun, etxea da Euskadiko familien gastu nagusietako bat. Zehazki, Euskadiko etxebizitzaren % 16k beren diru-sarreraren % 30 baino gehiagoko gastuak zituzten 2012an¹⁵⁹. Gainera, krisiarekin, Etxea ez-ordaintze egoerek gora egin dute, eta zenbait kasutan, enbargoa eta etxegabetze-kasuak gertatu dira. Etxearekin lotutako gastuak (alokairua, hipoteka, ordainagiriak eta abar) ordaintzean atzerapenak edo ez-ordaintze arazoak dituzten etxeetan bizi diren euskal herritarren ehunekoa 2008an % 2,9koa izatetik 2012an % 5,9 izatera pasatu da¹⁶⁰.

Era berean, oso garrantzitsua da etxearen bizitzeko baldintzei arreta jartzea, herritarren bizitzakalitatearen faktorea baita. Azken urteetan, errentagarritasun-arazoaren jaitziera nabaritu da oro har (hezetasuna, kutsadura eta abar). Hala eta guztiz ere, krisiaren hasiera baino lehen erregistratutako datuekin alderatuta, azken neguan hotza pasatu izanaren moduko arazoak ugaritu egin ziren 2012an. Zehazki, euskal herritarren % 8,3k bizi diren etxeetan, batzuetan, azken neguan hotza pasatu dute. Ehuneko hori handiagoa da etxe txiroetan soilik aztertutakoan; izan ere, kasu horietan, % 33,6 dira hotza pasatu duten pertsonak¹⁶¹.

¹⁵⁵ EIN. Bizitza Baldintzen Inkesta.

¹⁵⁶ 2013ko datuak behin-behinekoak dira. 2004tik Bizi-baldintzen Inkestak emandako datuak aztertu zituen EINEk 2013ko azaroaren 20an 2011ko Erroldako populazioak erabiliz eta adierazlearen kalkulua hobetuz. Horregatik dute datuek nolabaiteko aldakortasuna eta baliteke informazio berdina eskaintzen duten beste argitalpen edo txosten batzuetako datuekin bat ez etortzea.

¹⁵⁷ EIN. Bizitza Baldintzen Inkesta.

¹⁵⁸ 2013ko datuak behin-behinekoak dira. 2004tik Bizi-baldintzen Inkestak emandako datuak aztertu zituen EINEk 2013ko azaroaren 20an 2011ko Erroldako populazioak erabiliz eta adierazlearen kalkulua hobetuz. Horregatik dute datuek nolabaiteko aldakortasuna eta baliteke informazio berdina eskaintzen duten beste argitalpen edo txosten batzuetako datuekin bat ez etortzea.

¹⁵⁹ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Txirotasunaren eta Gizarte Gaiaren Inkesta. 2012.*

¹⁶⁰ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Txirotasunaren eta Gizarte Gaiaren Inkesta. 2012.*

¹⁶¹ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *Txirotasunaren eta Gizarte Gaiaren Inkesta. 2012.*

Bestalde, familia-etxetik emantzipatzeko prozesua hasiko duten etorkizuneko gazte-belaunaldientzako ez dirudi egoerak hobera egingo duenik. 2010eko datuen arabera, 15 eta 24 urte arteko hamar gaztetatik bik egungo etxetik independizatu nahiko lukete eta ezin dute hori egin arrazoi ekonomikoak direla eta. Bitxia dirudi 2006an kopurua % 30ekoa izatea. Hori dela eta, pentsa daiteke zailtasun ekonomikoek independizatzeko nahia kentzen dutela¹⁶². 2009ko datuen arabera, 35 urtez azpiko Euskadiko hamar gaztetatik lau bakarrik (% 46) daude emantzipatuta¹⁶³. Etxebizitza batera iristeko oztopoak, erosteko izan edo alokairurako izan, traba dira biztanleria gaztearen etorkizuneko proiektuetan. Azken batean, estalitako txirotasunaren beste modu bat izan daiteke.

¹⁶² Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika. 2010.

¹⁶³ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Laneko Merkatuaren Errolda. 2009ko Aurrerapena.

Aisialdia

Haurren eta nerabeen osoko garapenak zerikusia du aisialdi-baliabideetarako sarbide aukerekin ere, aisialdiaren erabilerarekin (hezkuntza ez-formalaren espazioari dagokionez), eta gizartean modu aktiboan parte hartzeko modu gisa bitzita kulturalean parte hartzeko aukerarekin.

Hala eta guztiz ere, hurrekin, aisialdiarekin eta kulturarekin lotuta datu estatistikoak izatea ez da oso ohikoa, eta askotan, 2006ko iturrietara jotzen jarraitzea behartzen du horrek. Edonola ere, begirada haietan jartzea interesatzen zaigu.

Aisialdiaren erabilera

Gehienetan, 14 eta 17 urte arteko gazteak oso gustura sentitzen dira beren aisialdiari emandako erabilerarekin, baina % 8,5ek adierazi du estresatu egiten dela.

2011n Unicefek argitaratutako *Bitzita-kalitatea eta haurren ongizate subjektiboa Espainian, zerk eragiten dio DBHko 1. mailako Espainiako haurren ongizateari?*¹⁶⁴ txostenak agerian jartzen du 14 eta 17 urte arteko Euskadiko gazteek aisialdiaren erabilerari dagokionez duten asebetetze maila altua, hamarretik bederatzitik puntuko asebetetzea. Gainera, adin horretako hamar gaztetatik bederatziren ustez aisialdian egiten dituzten jardueren inguruko erabakiak hartzeko ahalmena dute, are gehiago adina aurrera doan heinean edo landa-ingurunean bizi diren gazteen kasuan¹⁶⁵.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharrekoa da egungo aisialdiko zenbait proposamen eta formulak haurtzaroan eta nerabezaroan izan ditzaketen ondorioak. Izan ere, 14 eta 17 urte arteko Euskadiko gazteen % 8,5en esanetan, 2006ko datuen arabera, estresa sentitzen du aisialdian. Estres gehiago nabari dute neskek mutilek baino (% 10,10 nesken artean eta % 6,80 mutilen artean), eta adinak aurrera egin ahala, behera egiten du kopuruak (15 eta 16 urte arteko gazteen % 10,70 estresatuta sentitzen da, eta 17 eta 18 urte artekoen % 5,7k sentitzen du estresa)¹⁶⁶.

11 eta 17 urte arteko gazteek astero batez bete ordu eta erdi igarotzen dute eskola-ordutegitik kanpo etxeko lanak egiten

Adingabekoen aisialdia ikasketekin lotutako jarduerekin beteta dago geroz eta gehiago. Zehazki, 11 eta 17 urte arteko Euskadiko gazteek astero batez beste 1,64 ordu inguru ematen dituzte eskola-ordutegitik kanpo etxeko lanak egiten, eta neskek denbora gehixeago igarotzen dute (1,73 ordu neskek eta 1,54 ordu mutilek)¹⁶⁷.

¹⁶⁴ Unicef. *Bitzita-kalitatea eta haurren ongizate subjektiboa Espainian, zerk eragiten dio DBHko 1. mailako Espainiako haurren ongizateari?* 2012

¹⁶⁵ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁶⁶ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁶⁷ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

Bestalde, datu batzuen arabera, aisialdia, batez ere txikienena, pertsona heldu batek antolatuta, zuzenduta eta gainbegiratuta (eskolaz kanpoko jarduerak, kanpamenduak, ludotekak eta abar) egoteko joera dago, agian, laneko eskakizunen eta seme-alabak eremu seguruetan okupatuta izan nahi dituzten gurasoen kontziliazioak horretara bideratuta.

2006an, 11 eta 17 urte arteko Euskadiko herritarren % 55ek kirola praktikatzeko aukerak erabiltzen zituzten (klubak, erakundeak, akademia edo eskolaz kanpoko jarduerak). Aisialdian margotu, marraztu edo eskulanak egiten zituzten gazteen % 23k erakunderen baten laguntzarekin jardun zuten (kluba, elkarteak...). Bestalde, hamarretik hiruk egitura formal eta antolatutako baten bidez jotzen zuten musika. Azken bi kasuetan, nesken ehunekoak zertxobait altuagoak ziren eta adinak gora egin ahala ehunekoak behera egiten zuten.

Kirola

11 eta 17 urte arteko Euskadiko herritarren % 84k kirola egiten du. Hala ere, adinean aurrera egin ahala, nesken ehunekoak mutilena baino txikiagoak da.

Bistakoa da kirola praktikatzeko eta aisialdi aktiboak haurren eta nerabeen garapenean duen garrantzia. Urte horretan, 11 eta 17 urte arteko Euskadiko herritarren % 84k kirolen bat egiten zuten aisialdian -Estatu mailan erregistratutakoaren ehuneko berdina-. Hala ere, sexuaren arabera aldeak izan ziren eta kirolen bat egiten zuten nesken kopurua txikiagoa zen (% 79,10 nesken kasuan eta % 89,60 mutilen kasuan)¹⁶⁸.

Hori bai, nabarmendu beharrekoa da adinak aurrera egin ahala kirolaren presentzia txikiagoa dela. 2006an, 11 eta 12 urte arteko gazteen % 89,20k kirola egiten zuten aisialdian, eta 17 edo 18 urte zituztenen artean kopurua % 72,40ra jaisten zen¹⁶⁹.

2013. urteari dagokion beste iturri berriagoko datuen arabera, 15 eta 24 urte arteko hamar gaztetatik bi inguruk (% 22,60) inoiz ez edo oso gutxitan egiten du ariketa fisikoa aisialdian, eta ehunekoak hamarretik hirukoa da (% 30,90) emakumeen kasuan¹⁷⁰. Ildo horretatik, interesgarria dirudi gehitzeak 15 eta 24 urte arteko herritarren % 15,3k uste duela auzoan edo herrian ariketa fisikoa egiteko nahikoa instalazio edo instalazio egokirik ez dagoela.

Gainera, Arartekoaren 2013ko Eusko Legebiltzarrerako Urteko Txostenak¹⁷¹ adierazi du eskola-kirolarekin lotuta herritarrek erakunde honen inguruan egindako kexarik adierazgarrienak kirol-eskaintzaren diseinuan eta kirola praktikatzeko erakundearen genero-berdintasun irizpideak eskas aplikatzearekin daudela lotuta.

¹⁶⁸ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁶⁹ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁷⁰ Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. EAEko Osasun Inkesta 2013

¹⁷¹ Arartekoa. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena. Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena 2013.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT)


1 eta 14 urte arteko Euskadiko haur eta nerabeen erdiek baino gehiagok egunean ordubete edo gehiago pasatzen dute telebista ikusten eta hamarretik bik denbora hori pasatzen dute bideojokoetan, ordenagailuan edo Interneten..

Adin txikieneko biztanleriak telebista ikusten pasatzen duen denbora da aisialdi pasiboarekin lotutako adierazle garrantzitsuenetako bat. Hala ere, zenbait txostenek¹⁷² adierazi dute telebistak adierazgarritasuna galdu duela gazteriaren zenbait sektoretan, eta horretan zerikusia izan du informazioaren eta komunikazioaren teknologien hedapenak.

2011-2012ko Osasunaren Inkesta Nazionalaren¹⁷³ datuen arabera, 1 eta 14 urte arteko EAEko haur eta nerabeen erdiak (% 49,80) egunean ordubete edo gehiago ematen du telebista ikusten astean zehar; aldiz, estatu mailako batez bestekoa % 63,37koa da. TB kontsumoa handiagoa da mutilen artean (% 57,14 mutilen kasuan eta % 42,02 nesken kasuan)¹⁷⁴.

Gero eta indibidualizatuagoak eta eremu itxietan kokatutakoak diren jolasteko moduak indar handia ari dira hartzen. Aisialdiaz modu sedentarioan gozatzeko aukera ematen dute. 1 eta 14 urte arteko hamar haur eta nerabetik bik (% 20,82) astean egunero ordubete edo gehiago ematen dute bideojokoetan, ordenagailuan edo Interneten, mutilen kasuan % 22,22k, eta nesken kasuan, % 19,33k¹⁷⁵.

17. GRAFIKOA: TELEBISTA IKUSTEN EDO BIDEOJOKOETAN, ORDENAGAILUAN ETA INTERNETEN EGUNERO ORDU ETA ERDI EDO GEHIAGO PASATZEN DUTEN 1 ETA 14 URTE ARTEKO BIZTANLERIA. 2012KO EAE



Iturria: bertan egina, 2011-2012ko Osasunaren Inkesta Nazionalaren datuetatik abiatuta

Informazioaren teknologien eta komunikazioaren garapenari esker, horiek gero eta garrantzitsuagoak dira gure eguneroko bizitzan, eta harremanak izateko eta komunikatzeko moduetan aldaketa garrantzitsuak eragin ditu, batez ere haurren eta nerabeen artean. Talde hori IKTekin oso ohituta dago, beste biztanleria talde bat egon daitekeena baino gehiago.

¹⁷² Arartekoa. *Adingabekoei balioak transmititzea.*

¹⁷³ EIN. Osasunaren Inkesta Nazionala 2011-2012

¹⁷⁴ EIN. Osasunaren Inkesta Nazionala 2011-2012

¹⁷⁵ EIN. Osasunaren Inkesta Nazionala 2011-2012

2013an, 6 eta 14 urte arteko hamar neska-mutiletik bederatzik (% 90,66) Internet dute etxean; aldiz, 2004an, herritarren erdiak inguruk zuten Internet (% 48,60) eta 2008an, hamarretik zazpi¹⁷⁶.

Abiapuntua edozein izanda ere, 2013ko datuen arabera, 10 eta 15 urte arteko herritarren % 95 Interneteko erabiltzaileak dira (% 91,8 Espainian); hala ere, familiaren maila ekonomikoak zenbait alde ezartzen ditu, ehunekoak hamarretik zazpira jaisten baita (% 71,3) etxeko hileko sarrera garbiak 900 euro baino gutxiagoak direnean¹⁷⁷.

6 eta 14 urte arteko hamar haurretik bederatzik etxetik Interneteko sarbidea dute.

10 eta 15 urte arteko herritarren % 95 Interneteko erabiltzaileak dira. Hala ere, etxeko diru-sarrerak zenbat eta txikiagoak izan, ehunekoak ere orduan eta txikiagoak dira.

10 eta 12 urte arteko hamar haurretik zortzi informazioa bilatzeko konektatzen dira Interneten eta hamarretik lau sare sozialetan parte hartzeko.

Interneti ematen dioten erabilera oso anitza da, baina azterketarekin lotutako zereginetarako erabilera (2010eko datuen arabera, 10 eta 12 urte arteko hamar gaztetatik zortzi ikasketetarako informazioa bilatzeko konektatzen da Interneten), eta sare sozialen konexioarekin lotutako erabilera (hamarretik lau) nabarmendu behar da gehien¹⁷⁸.

Talde honek IKTen erabileran erakusten duen domeinua abantaila garrantzitsua da eta informazioa, prestakuntza eta abar modu bizkorrean eta eraginkorrean kudeatzeko aukera handiagoak eskaintzen dizkie. Era berean, sare sozialen erabilerak efektu garrantzitsua izan du haurrak eta nerabeak ingurunearekin, berdinaren artean eta abar erlazioatzeko moduan. Hala ere, garrantzitsua da gerta daitekeen gehiegizko erabileran arreta jartzea, segurtasuna hobetzea eta erabileratik eratorritako arrisku posibleak saihestea (alor honekin lotutako informazioa dator osatuta txosten honetako azken kapituluan).

Kultura

Neurri batera arte behintzat, ingurunearekin batera jarduteko modu berri hauen eta informaziorako sarbidearen artean, eta izaera kulturalerako zenbait jarduerak bigarren plano batera utzi izanaren, eta haurren eta nerabeen aisialdian gero eta presentzia txikiagoa izatearen arteko nolabaiteko lotura nabari da.

11 eta 17 urte arteko gazteen % 24,60k adierazi du aisialdian ez duela inoiz libururik irakurtzen.

2006ko azken datu erabilgarriekin bat etorritik, 15 eta 24 urte arteko herritar gazteek irakurketarekiko duten interes maila (6,4 1etik 10erako interes-eskala batean) euskal herritar guztien interes mailaren azpitik dago (7 puntu)¹⁷⁹. Gainera, EAEko 11 eta 17 urte arteko adingabekoen laurden baten (% 24,60) arabera, aisialdian inoiz ez du libururik irakurtzen eta mutilek neskek baino gutxiago irakurtzen dute (mutilen % 29k ez du inoiz irakurtzen aisialdian, eta nesken % 19 dago egoera horretan)¹⁸⁰.

¹⁷⁶ Eustat. Informazioaren Gizartearen Inkesta ESIF. 2013

¹⁷⁷ EIN. Informazio eta Komunikazio Teknologien Erabilera eta Ekipamenduari buruzko Inkesta 2013

¹⁷⁸ Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritza. Adingabekoen eta Teknologia Berrien txostena. Erabilera-ohiturak eta arriskuaren pertzepzioa. 2010

¹⁷⁹ Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Kulturaren Euskadiko Behatokia. Kulturako Ohituren, Praktiken eta Kontsumoaren estatistika. 2007-2008.

¹⁸⁰ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

15 eta 24 urte arteko herritarren arte-zentro eta museoekiko interes maila 4,1 puntukoa da (1etik 10erako eskalan).

15 eta 24 urte arteko herritar gazteen artean, badirudi museoetara eta arte-zentroetara joatearen moduko jarduerak ez direla oso interesgarriak. 15 eta 24 urte arteko herritar gazteek museoekiko eta arte-zentroekiko duten interes maila 10 puntutik 4,1ekoa da; hori euskal herritar guztien multzoak erakutsitako interes mailarekin bat dator, hamarretik 5 izatera ez baita iritsi (4,9 puntu)¹⁸¹.

18 urtez azpiko seme-alabaren bat duten euskal herritarren % 59k aitortzen du inoiz edo ia inoiz ez direla haiekin joaten museoren batera edo erakusketaren batera 2012ko datuen arabera. Ehuneko hori azken urteetan murriztu egin da (2001ean % 73)¹⁸².

Aldiz, 15 eta 24 urte arteko gazteek musikarekiko duten interes maila (8,3 puntu) handiagoa da euskal gizarteak osotasunean duen interesa baino (eskala hori baino puntu bat gorago).

Aisialdirako sarbidea

Adingabekoak dituzten Euskadiko etxean % 28,5ek ezin ditu oporraldiak ordaindu nahikoa diru-sarrerarik ez dutelako.

Bestalde, gogoan izan behar da haurrek eta nerabeek aisialdiko baliabideetara duten sarbidea familien baliabide ekonomikoen disponibilitatearekin lotuta dagoela. Ildo horretatik, zenbait datuk jakinarazten digute egungo krisiak herritarren aisialdi-aukeretan eragin dezakeela.

2012ko datuen arabera, hamar pertsonatik bik inguruk (% 21,6) aisialdiko gastuak murriztu egin dituzte etxean, 2008koen bikoitzak (% 10,1) eta 1986an erregistratutako antzeko kopurua (% 27)¹⁸³. Datuek familiei erreferentzia egiten dien arren, orientazio-erreferentzia gisa balio dute. Batez ere, kontuan hartzen baldin badugu adin txikikoak dituzten etxeak Euskadiko etxean laurdena (% 27,40) direla.

2008an, adingabekoak zituzten Euskadiko ia hamar etxetatik hiruk (% 28,50) ezin zituzten oporrak ordaindu, nahikoa diru-sarrera ez zutelako (hamarretik lau Estatu mailan). Hori dela eta, 2004rekin alderatuta, % 3ko igoera gertatu da¹⁸⁴. Etxeetarako daturik eguneratuenak eskaintzen dituen *2012ko Txirotasunaren eta Gizarte Desberdintasunen* inkestak¹⁸⁵ ere nolabaiteko igoera izan du arazo ekonomikoak direla eta oporrez gozatu ez duten etxeen tasan.

¹⁸¹ Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Kulturaren Euskadiko Behatokia. Kulturako Ohituren, Praktiken eta Kontsumoaren estatistika. 2007-2008.

¹⁸² Lehendakaritza. Prospekzio Soziologikoaren Kabinetea. *Familia EAEn*. 2012eko uztaila.

¹⁸³ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txirotasunaren eta Gizarte Gai Inkesta. 2012.

¹⁸⁴ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Etxeetako inkesta 2008

¹⁸⁵ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txirotasunaren eta Gizarte Gai Inkesta. 2012.

Ingurunea eta integrazioa

Balioak

Homosexualitatea eta abortua modu naturalean tratatzen dituzte herritar gazteek. 2008an, abortu librearen kontrako jarrera zuten 15 eta 29 urte arteko gazteen kopurua % 15koa zen, eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen kontra zeudenen kopurua % 9koa¹⁸⁶.

Hala eta guztiz ere, talde jakin batzuetarako estereotipoek (batez ere, bazterkeria-egoeran dauden taldeak) egoten jarraitzen dute. Horrela, esate baterako, EAEko 15 eta 19 urte arteko herritarren erdiek ez lukete nahiko drogaren mendekoak diren pertsonak bizilagun izatea; hamarretik lau deseroso sentituko litzateke ijito-etniako bizilagunekin, eta % 30k ez luke nahiko preso ohiak bizilagun izatea¹⁸⁷.

15 eta 29 urte arteko gazteen % 43 agnostikoa eta atea da.

15 eta 29 urte arteko gazteen % 24k politika edukirik gabeko gezurrekin eta hitzekin lotzen du.

Arartekoaren *2009ko Adingabekoei Balioak Transmititzea*¹⁸⁸ ezohiko txostenak adierazten du hurrek eta nerabeek gai kulturei, politikoei eta erlijio-gaiei denbora gutxi eskaintzen dietela eta horri buruzko interes eskasa dutela. 15 eta 29 urte arteko gazteen % 24k politika edukirik gabeko gezurrekin eta hitzekin lotzen zuen, % 12k ustelkeriarekin eta diruarekin, eta beste hainbestek interesik ezarekin eta aspermenarekin¹⁸⁹. Bestalde, 2008an 15 eta 29 urte arteko euskal herritarren % 43 agnostikoa edo atea zen (% 40 nesken kasuan eta % 48 mutilen kasuan). Hala eta guztiz ere, kopuru hori % 9ra jaisten da nabarmen atzerriko biztanleen kasuan¹⁹⁰.

Sare soziala

Gazteen artean adiskideek esanahi handia dute, batez ere, nerabezaroan. Ereku horretan oso gustura sentitzen dira; izan ere, adiskideekin duten lotura 10etik 8,68 puntuko batez besteko puntuazioarekin kalifikatzen dute¹⁹¹.

Eta horretan, oro har, sare sozial zabala izan ohi da; 15 eta 24 urte arteko herritarren lagun-eta familia-sarearen batez besteko neurria 24 pertsonakoa da, euskal herritar guztien sarearen batez besteko neurria baino handiagoa, 21,2 lagunekoa baita¹⁹². Hala eta guztiz ere, zenbait eragileren arabera, haurtzaroko sare sozialaren prekaritasuna hazten ari da eta sare sozial hori pixkanaka murrizteko arriskua dago herritar helduen prebentzio-estrategien ondorioz, betiere, segurtasunik gabeko egoerak saihestera zuzenduta (seguruak ez diren eremuak saihestu eta abar). Estrategia horien bidez, neska-mutilek autonomia txikiagoa garatzen dute inguruarekin alderatuta. Izan ere, kalean denbora gutxiago pasatzen dute eta bere inguruko pertsonekin harreman gutxiago mantentzen dute¹⁹³.

¹⁸⁶ 2008ko Euskadiko Gazteriaren Txostena. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila.

¹⁸⁷ 2008ko Euskadiko Gazteriaren Txostena. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila.

¹⁸⁸ Arartekoa. *Adingabekoei balioak transmititzea*. 2009

¹⁸⁹ Arartekoa. *Adingabekoei balioak transmititzea*. 2009

¹⁹⁰ 2008ko Euskadiko Gazteriaren Txostena. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila.

¹⁹¹ Espainiako Gobernuak Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak*.

¹⁹² Eustat. Kapital Sozialaren inkesta. 2012

¹⁹³ Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. *EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa. 2011ko uztaila*.

Zehazki, badirudi EAEko 14 eta 17 urte arteko gazteen % 9,5ek zailtasunak dituela lagun berriak egiteko garaian (ez dute lagun berririk egiten). Landa-ingurunean bizi direnean, kopurua zertxobait baxuagoa da (% 8,3)¹⁹⁴.

Atzerritarrek ere harremanetarako eta integrazioarako zailtasun handiagoak dituzte; izan ere, 2010eko datuen arabera, 6 eta 16 urte arteko atzerritarren % 4,10ek gizarte-bazterkeriaren bat jasaten du (tratu txarra, jazarpena edo beste bazterkeria-arazo batzuk). Aldiz, bertako herritarren artean, horrelako bazterkeria motak jasaten dituzten herritarren kopurua % 1,60koa da. Hala eta guztiz ere, 2007ko datuei dagokienez, jaitsiera nabari da atzerriko adingabeen kasuan (% 7,7) eta bertako adingabeen kasuan (% 2,7).

10 eta 15 urte arteko hamar adingabetik zazpi sakelako telefonoa du.



Lehen adierazi den moduan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek nabarmen eragin dute herritar gazteen komunikatzeko eta harremanetarako moduetan. Horien jokabideak eta ohiturak oso lotuta daude Interneten erabilerarekin eta sare sozialekin. 2013ko datuekin bat etorritik, 10 eta 15 urte arteko hamar adingabetatik zazpi inguruk dute sakelako telefonoa. Hala ere, kopurua % 65era jaitsi da 900 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzten etxeetan bizi direnen kasuan¹⁹⁵.

14 eta 16 urte arteko hamar gaztetik hiruk adierazi du astean bitan baino gehiagotan txateatzen duela lagunekin Internet bidez.



Teknologia horiekin haurren eta nerabeen harremanak aztertzen dituzten zenbait azterketak adierazten dute erabiltzeko arrazoi nagusien artean komunikatzeko eta lagunak egiteko berehalako aukerak daudela. 14 eta 17 urte arteko Euskadiko gazteen % 35,6k adierazi du Internetez ezagututako gutxienez lagun on bat baduela eta ez duela aurrez aurre ezagutzen¹⁹⁶.

Azterketa horien arabera, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilerak derrigorrez ez dakar berdinen arteko harremanak txartzea, baizik eta lotura sustatu dezakeen harremanetarako osagarria izan daiteke. 2006an, 14 eta 16 urte arteko Euskadiko gazteen % 32k nabarmendu zuen astean bitan edo gehiagotan lagunekin Internetez txateatzen zuela. Estatu mailan erregistratutakoaren antzeko ehunekoa da (% 35,70 titulartasun pribatuko ikastetxeetako adingabekoen kasuan).

10 eta 12 urte arteko ikasleen % 24k sakelako telefonoarekin argazki bat atera eta grabatu du besteren onespengabe.



Hori bai, arreta berezia jarri behar zaie teknologia horien erabilerarekin lotutako indarkeria modu berriei. *Adingabekoen eta Teknologia Berrien Azterketa. Erabilera-ohiturak eta arrisku-pertzepzioa*¹⁹⁷ txostenaren arabera, 2010ean, 10 eta 12 urte arteko Euskadiko ikasleen % 15 deseroso, mehatxatuta edo iraindua sentitu zen telefono mugikorrera egindako deiengatik edo mezuengatik. Gainera, adin honetako ikasleen % 24k telefono mugikorrarekin argazki bat atera edo norbait grabatu zuen haren onespengabe.

¹⁹⁴ Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁹⁵ EIN. Informazio eta Komunikazio Teknologien Erabilera eta Ekipamenduari buruzko Inkesta 2013

¹⁹⁶ Espainiako Gobernuako Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioa. *Health Behaviour in School-aged Children (HBSC)/Eskolatutako gazteen jokabide osasungarriari buruzko ikerketa. 2006ko datuak.*

¹⁹⁷ Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritza. *Adingabekoen eta Teknologia Berrien txostena. Erabilera-ohiturak eta arriskuaren pertzepzioa. 2010*

Egoitza-ingurunea

Haurrak eta nerabeak bizi diren etxebizitza-inguruarekin zerikusia duten zenbait ezaugarri ere ongizatearen eta bizitza-kalitatearen adierazletzat jo daitezke. 2013ko datuen arabera, 15 eta 24 urte arteko gazteen ustez, bere inguruan kanpoko soinu-arazoak daude. Inguruan delinkuentzia-arazoak dituztela diotenak % 1,6 dira adin talde horretan, eta % 1,2k esan du aire-kutsadura arazoak daudela¹⁹⁸.

Haurren kontrako tratu txarra

2013an, sexu-askatasunaren aurkako delituengatik eta tratu txarreatatik 18 urtetik beherako 1.200 biktimizazio baino gehiago erregistratu ziren.

Osasunaren Munduko Erakundeak egindako *Haurren tratu txarren prebentzioaren gaineko Europako txostenak*¹⁹⁹ jakinarazi du 18 urtetik beherako 18 milioi haurrek baino gehiagok jasaten dituztela tratu txarrak Europan. Txosten honen arabera, hamarretik hiruk inguruk jasaten du tratu txar emozionala, hamarretik bik tratu txar fisikoa eta haurren % 13,4k jasaten dituzte sexu-gehiegikeriak. Mutilen kasuan, kopurua % 5,7koa da. OMEtik haurren kontrako tratu txarrak aitortzearen alde egiten da, osasun publikoaren arazoa baita, eta ez zigor- eta gizarte-justiziaren arazo gisa soilik.

2013an, sexu-askatasunaren aurkako delituengatik eta tratu txarreatatik 18 urtetik beherako 1.230 biktimizazio baino gehiago erregistratu ziren. Kasuen % 51,47an tutorea ez zen familia-ingurukoa (hala ere, familiari eskainitako kapituluan azaldu den moduan, gogoratu behar da kasuen beste % 48,53 familia-inguruarekin lotutako biktimizazioei dagokiela)²⁰⁰.

Arau-hausteak

Azkenik, adingabeak diren arau-hausleekin zerikusia duten zenbait datu berrikusi nahi ditugu. Arituen arabera, urrakortasun- eta babesgabatasun-egoerari aurre egin behar dioten haurrek eta nerabeek legea urratzeko eta adingabe arau-hausle bihurtzeko probabilitate handiagoa dute.

Arau-hausteak egiten dituzten adingabekoen kopuru zehatzik ez dugun arren, urtero aplikatutako neurrien kopuruak (baliteke arau-hauste bat baino gehiagoko adingabeak egotea) % 19²⁰¹ egin du behera 2009ko eta 2012ko datuak alderatzen baldin badira. 2009an behin betiko 1.239 neurri exekutatu ziren, eta 2012an 992. 2012an, neurrien % 53,02 komunitatearen onurarako laguntzekin eta zaintzapeko askatasun tinkoarekin²⁰² betetzen dira. Nesken ehunekoak gora egin du. 2008an % 13,1ekoa zen kopurua eta 2012an % 20,2koa. Atzerritar gazteen kopuruak berriz, behera egin du, 2008an % 40koa izatetik 2012an % 31,7koa izatera pasatu da. Neskek tratu txarreakin, familia-indarkeriarekin eta lapurretarekin lotutako delinkuentzia-ekintza gehiago egiten dituzte, eta kalteak, indarkeriazko lapurretak eta trafiko-segurtasunaren kontrako ekintzak ez dituzte ia egiten.

¹⁹⁸ Osasun Saila. *Euskadiko Osasun Inkesta 2013*

¹⁹⁹ OME. *Haurren tratu txarren prebentzioari buruzko Europako txostena. 2013*

²⁰⁰ Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila. Espresuki egindako eskaera.

²⁰¹ Bi neurri mota dira: kautelazkoak (kautelazko zaintzapeko askatasuna, kautelazko zentro itxietan sartzea, kautelazko bizikidetzak) edo behin betikoak (komunitateari zerbitzuak ematea, zaintzapeko askatasun irmoa, zentro itxietan sartze irmoa, anbulatorioan tratamendua ematea, lan sozioedukatioak, asteburuetako permanentzia, hezitzaile taldearekin elkarbizitza, eguneko zentroetara joatea).

²⁰² Arartekoa. Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostena 2012. Haur eta Nerabeen Bulegoaren txostena.